IDATZ & MINTZ

59

Aurkibidea: Miren Agur Meabe: LA RECHERCHE DE L'ABSOLU. **3**. Amaia Iturbide: J.M. UCELAY: BIOSFERA ATONTZEN. **6**. Jabier Kalzakorta: DIMAKO DANTZA-KOPLA BILDUMA BAT. **9**. Iratxe Ormatza Imatz: BAZKARIA. **22**. Eneko Urizar: GOZOKIAK POLTSIKOETAN. **25**. Juan Ramon Madariaga: MENDAZKO BIZKOTXOAK. **26**. Xabier Boveda: MARIO BENEDETTI. **28**. Sebastian Gartzia Trujillo: ARNAUT OIHENARTEN IPUIN BEROA. **37**. Lontzo Zugazaga: ITURRIKORI *JESU KRISTOREN EBANJELIOA* LIBURUAREN INGURUAN. **40**.

ARGITARATZAILEA
Labayru Fundazioa
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA
Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2015eko abenduan, Impresión Tecnigraf, S.L.L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times letra moldeaz. Azaleko irudia Olga Seco, gainerakoak «Erté graphics», «Big book of silhouettes» eta «3.800 early advertising cuts» liburuetatik atera izan dira.

LabayruFundazioa

bbk

MIREN AGUR MEABE

La recherche de l'absolu

Lauretan batu dut Michelle. Autobusa pixka bat lehenago iritsi denez, bazter batean itxaron dit, maleta gorria espaloian. Ilea lisatuta dakar, eta larruzko jaka beltza. Argal eta zurbil dago.

–Ondo zaude? –galdetu diot.

Bizkor besarkatu dut, eguna hara eta hona baitaramat. Ikastetxe batetik atera berri naiz, ikasleekin indarrak akitu eta gero, irakurri duten liburuak egileari kasu pixka bat egiteko bezainbesteko merezimendua bazuela frogatzeko ahaleginean. Gainera, ohituta nago denbora neure komenientziara antolatzen, eta laguna egun batzuetarako etorrita, badakit ezingo diedala nire zereginei betiko martxan heldu. Michelleren gorputza ere zurrun nabaritu dut.

–Lehengoan jausi egin nintzen kalean –azaldu dit–. Zauria daukat belaunean, eta hanka behartuta egin dut bidaia.

–Trankil. Autoa hartu, eta ordubetean helduko gara. Zer moduz zure alaba?

–Haserre, han utzi dudalako. Atzo maletan sartu zitzaidan, eta ez zuen irten nahi, baina ohitu egin behar du aldizka ni barik egoten.

Michellek bihotzez eskertzen du bere katuaz interesatzea, irribarre egiten du galdera entzun eta batera. Behin kontatu zidan jatekoren batek kalte egin, eta Binoche beherakoak jota ibili zela etxe osoan dindirria uzten. Bainuontzian sartu zuela, garbitzeko, baina katua hainbeste ikaratu zen, non erpea sartu zuen hustubidean. Zoratu egin zitzaion, hanka katigatu eta zulotik atera ezinik. Michelle ere larritu zen: ikusita zeuzkan, txikitan, zepoan harrapatutako katamotzen edo azkonarren gorputz-adar solteak, haragi bizian, bizia salbatzearren animaliak berak zarra eraginda. Azkenean suhiltzaileei deitu omen zien, goizeko hiruretan. Lasaigarri bat ipini, eta halaxe lortu zuten katua askatzea.

–Eta zure amorante hura… Zertan da?

–Pasa den astean geratu ginen. Neuk hots egin nion, negu osoan ikusi gabe.

–Eta?

–Menu bat bazkaldu, eta gero kafe bat hartzera gonbidatu ninduen etxera.

–Eta?

–Neska koxkor bat bezalakoa naiz. Sofan jesarrita geunden. Halako batean bota zidan: "Orain beldurra didazu ala?". Eta nik: "Zergatik?". Eta berak: "Ez duzulako poltsa kendu bularparetik". Ohean bukatu genuen, primeran, baina berak bazeukan hitzorduren bat, beti bezala, edo errekaduren bat… Nire katuari bai, Binocheri axola natzaio benetan.

Aparkalekuan, Michellek txakur bat laztandu du, ezezagun batena. Teoria funtsatua dauka animaliei dien maitasunaren gainean:

–Amak txirikordak egiten zizkien nire ahizpei; niri, ordea, ezin motzago uzten zidan ilea, amorrua zien nire kizkurrei. Etxean zerbait apurtzen zenean, lehenbiziko belarrondokoa niretzat izaten zen bai ala bai, errua besteena izanda ere.

Erresuminik gabe ari da hizketan.

–Atzo amaren urtebetetzea izan zen –jarraitu du–. Hiru aldiz deitu nion, baina ez zidan hartu, nahita.

–Familia guztietan egoten da baten bat besteen kontenplazioa bilatzen duena soberbian babestuta... Tira, halakoei esker kontzientzia garbiagoarekin egiten dugu lo besteok… Ezpainetako hori berria da? Utziko didazu.

Michellek begiak itxi ditu. Hemengo eguraldi hezeak, lainoak, baretzen laguntzen diote.

–Nahi duzunean… Animaliek salbatu ninduten. Atzealdeko landa zeharkatu, eta pikondo baten adarrera igotzen nintzen. Itsasoa guretik urrun egon arren, kostako haize-orratzak begitantzen zitzaizkidan urrunean. Orduak pasatzen nituen zerumugan zer ote zegoen, txakur eta katuz inguratuta, haiekin berbetan. Ipuinetako irudia ematen du, baina bakarbakarrik sentitzen nintzen.

–Ni ez naiz animaliazalea. Ortuan katuak sartzen dira, harroago… Paretik ere ez dira kentzen pasatzen uzteko. Ez pentsa, ikaratu egiten naiz salto egingo didatelakoan.

–Amak gorroto ninduen dudak zituelako noren alaba nintzen, aitarena edo osabarena. Nik uste aita zela nire aita, antza daukagu. Baina baliteke ama sasoi batean biekin ibili izana, eta zalantzak karrakatu egin zion bihotza, neure kalterako. Zalantzak eta damuak, azken orduan aitarekin ezkondu izanagatik, eta ez osabarekin, betiko mutil-lagunarekin.

–Bi anaiaren arteko lehiaren erdian egon zen ama?

–Ez ziren anaiak. Osaba nire osaba bihurtu zen nire amaren ahizpa bikiarekin ezkondu zelako handik laster… Gero gurasoak banatu egin ziren, hamabi urte nituenean edo. Ez batak ez besteak ez naute maite izan sekula, urteak behar izan ditut onartzeko. Aita orain dela urte pare bat hil zen, badakizu, erresidentzia batean. Ikustera joan nintzen, barkatu nion. Ama ikusi ez dudala… urteak. Biok dakigu ezin dugula bata bestearengandik hurbil egon.

–Zure ahizpekin moldatzen da?

–Bai, normal… Behinola gaixorik egon nintzen umetan, eta medikuak etorri behar izan zuen gurera. Arnasa hartzean zarata arraroa sumatzen zidala esan zuen, ron-ron moduko bat, eta ospitalera bialdu beharko nindutela. Orduan, amak manta altxatu, di-da, eta katu bat azaldu zen nire oinartean kukututa, poltsa beroarena egiten. Amak jo zion ostikadarekin, ez zen itzuli. Ulertzen didazu?

Michellek liburu bat utzi du logelako mahaitxoaren gainean, *La recherche de l'absolu*.

–Mais l'absolu n'existe pas! –zirikatu dut–. Harri filosofalaren bila oraindik? Ez dago ezer harriak diamante bihurtzen dituenik.

–Badakit, baina… Nik ez dut galtzen itxaropenik.

Gero, Binocheri ura aldatu eta gorozkiak kentzeagatik hamar euro egunean ordainduko dizkion auzokoari deitu dio, ea zer moduz. Emakumeak telefonoa ipini dio belarrian katuari, jabearen aho-

tsa entzun dezan. Hala ere, ez omen du berriz hori egingo, goitik behera miazkatu eta osorik hozkatu baitio aparatua. Katuaren marrauak nik neuk entzun ditut.

Egonaldi hau opari bat gertatzen ari zaiola dio Michellek. Lo piloa egin du, arrain ederra jan, hondartzan egurastu gara, belauneko zarakarra ez bustitzeko kontuz. Aje bakarra, ezeroso dabilela, tripetatik siku.

Egunero erakusten dizkit zirkuetatik salbatutako piztiak zaintzen dituen erakunde baten bideoak, eskuko telefonoan. Zeharo hunkitzen da jaiotzatik kaioletan egon eta lehen aldiz lurra ukitzen duten tigrekumeen erreakzioa ikustean.

Gure kuadrillan ez dagoenez gizonik libre, bere adineko alargun bat eta herriko tabernari bat seinalatu dizkiot, diskrezioz. Berak eskerrak ematen dizkit denagatik, "bihotzeko ahizpa" esaten dit.

Ustekabean, auzokoak deitu dio oraintxe bertan, jakinarazteko azken egunotan Binoche ez dela ohe gainetik mugitu, ile-mataza potoloak galdu dituela, eta ez duela kakarik egin.

–Ezin du nire falta eraman –arrazoitu du Michellek, betilun.

–Ederra daukazu bueltan! Szymborskaren poeman legez… Pisu huts batean geratu zen katua, ezin jabeari deitu, dena berdin eta aldi berean ezberdin sumatu, bakardadea ezin adituta… Kontsolamendua zuen pentsatzea ongi-etorri hotza egingo ziola jabeari itzultzean.

–Non zegoen jabea, ba, oporretan, neu bezala?

–Ez, hilda.

–Segituan itzuli behar dut orduan. Ezingo nuke jasan beste inoren mendekurik.

2015eko abuztuaren 3an



AMAIA ITURBIDE

J. M. Ucelay: biosfera atontzen

Itsas ibilbidea

Une honetan itsas paisaia aztertzen dabil
brankako gazteluan ordu bakartiak eman ondoren.
Gero aingura altxatzeko dibidietari bira egin eta
itsasontzia pintatzeko jardueran buru-belarri murgildu da,
itsas ibilbide luzea baita pintzelarena.

Itsasoratu aurretik, itsasadarrean geratu da.
Itsasontziari gain-begirada bat bota dio.
Sokateria osoa zehatz jarrita dauka
eta mastak zeharo tenkatuta daude.
Guztia pintzelaz errepasatu du, badaezpada ere.

Ez da okertu, itsaso handia egokitu baitzaio.
Jakin badaki eguraldi txarretik onik ateratzeko
lanean jo eta ke aritu beharko dela.
Haize zakarrengatik zabuka nabigatzen dihardu.
Azkenean pintzelaren laguntzaz
aurtzaka jarri du itsasontzia.

Lehorreratzean ontzi muturra eta kroskoa laztandu,
kopetako izerdia zapiz xukatu eta dotore tolestatuta
(hiru bela mutur irudikatuta)
lanerako txabusinatzat daukan
traje diplomatikoaren goiko sakelan ipini du.
Hauxe da bandera edo zutoihala jasotzeko
aukeratu duen modu partikularra.

Pintzela, intsignia isil hori,
abailduta, bustita eta malgu dago
(abailduta sarritan enbatei aurka egiteagatik,
bustita baga handi harrotuekin edukitako aurrez aurrekoagatik
eta malgu, berriz, uhinduren esperientzia ahantzezinagatik).

Itsasontzia pintatu ostean nekatuta dago
(hainbat besalditako begirada astuna darama),
abentura arriskutsu hau
bare itxurako itsasoz jantzi duelako
eta guztiari amaiera borobila eman diolako.

Haziz doazen ahateekin

Gernikako itsasadarreko ahateak
jasaten duten autismotik erreskatatu ditu
(soil-soilik euren buruaren isla izatetik),
lerro artean espetxeratutako
beti-bateko espazio murritz eta errepikakorraren
ibilbidetik atera ditu,
atera hainbat xehetasun txertatutatik
(lepo inguruko eraztun edota paparreko orezteta-
tik).
Jadanik ez dute adiskidetasun lokarritzat zubi azpi-
ko karela izango,
haientzat mundua ez baita
erdiraino betetako ur edalontzi bat.
Aitzitik, Gernikako itsasadarraren eremu zabalean
kokatu
eta ia-ia beltxargak izateko asmotan daude orain.
Jadanik ez dira oparitarako gauza izango,
paisaia bateko begirale pribilegiatuak baizik.

Eta etorkizunerako abesti bat daramate mokoan
gordeta.



Izadiak

Hor dauka izadia
aire zabalean antzeztutako paisaia mihiseratuetan
zoruak eta oinarriak
airearen formekin eta azal kizkurrekin errimatuz,
bizi esperientzia pinturaren irudimenaz hornitu eta
eta lurreko produktuak landuz,
izadi hilak izadi bizi bilakatu eta
detaile dandyz diseinatutako ingurugiro lasaian
ordenatuz.

Izadia ikusi eta sentitzeko modu zibilizatu hau
oraindik ere gainditu gabeko irakasgaia zaigu.

Conversation piece, just leisure edo Hemingway eta Duñabeitia: elkarrizketa kortesiazko kontua da

Hemingway *Agurea eta itsasoa* gogoan
pitarekin edukitako pultsua errepasatutakoan,
kirol arrantzaz hausnartzen ari dela dirudi.
Bien bitartean Duñabeitia
Ucelayren pintzela bakana dela ohartzen da,
oraindik aurkitzekotan den
uharte argitsua bezalakoa.

Daukaten elkarrizketaren ahotsaz
pintatuak izaten ari diren heinean
itsasotik bertatik jaio eta zeruraino doan urdinaz
hitz egiten dihardute,
pintzelkada bat eman orduko
egurats osoa haize leun bihurtzeko gauza den
Ucelayren urdinaz,
hainbat zuri eta gris tonurekin batera
kaio dotorea den urdinaz.

Bermeoko portuan

Ez dago miliarik, ezta ikus eremurik
horma-irudi hau neur dezakeenik.

Kaio luma luzean eta
eskalaz burututako nabigazioaren koreografia estilizatuan
dago portua,
pertsonaien arteko sareetan.
Konposizio kolektiboaren beste atal batzuen gisara
arkupeak agertzen dira uztai-dantza geldian
eta noraiak, berriz, mugarriz eginiko ibilbidean.

Ez dago itsasautsirik, itsasaroaren bilakaera baizik,
ez premiazko irtenbiderik,
egonaldia edo bertan nabigatzen jarraitzeko gonbidapena baizik.

Kateak soka laxatuekin batera ikus daitezke
eta pertsonaiengan igarri, berriz,
aireak arindutako pentsamenduak.

JABIER KALZAKORTA

Dimako dantza-kopla bilduma bat

1. Sarrera

Arratian Bizkaiko dantza-kopla ugari bildu dira. Ezagutzen ditugun bildumarik ugarienetakoak Zeanurikoak dira. Manuel Lekuonak 1935. urteko *Literatura oral euskérica* liburuan el *coplario de Zeanuri* aipatzen du, herri horretan bildutako kopla-bildumek *corpus* edo sail ederra osatzen zutelako. Eta, egia esan, Bizkaiko bildumarik ederrenak Gorbeia azpiko herri eder horretan bilduak izan dira. Manuel Lekuonak bere 1935. urteko liburuan dioenez, trikiti-koplak Arabatik Bizkaira Gorbeiatik sartu ziren. Arratia zen, beraz, Manuel Lekuonarentzat euskal trikiti-koplen sarrera-lekua. Arabatik Gorbeia menditik ezezik, baliteke Otxandiotik aurrera eginez Dimatik bertatik ere sartzea. Arratiako Zeanuri zein Dima herriak Bizkaiko trikiti-koplen habia aberatsak izan dira. Trikiti-koplak beste modu batera izendatzen zituen Manuel Lekuonak *sasi-soinu* eta *bizkai-dantza*. *Sasi-soinu* Oiartzun aldean halaxe esaten zutelako, *bizkai-dantza* Orixek Uitzi aldean hala esaten zela adierazi ziolako.

Dantza-kopla zaharrak gure liburuan Zeanuriko kopla-bildumak argitaratu genituen. Arratian, ordea, Dima ere oso herri koplazalea izan da. Manuel Lekuonak berak ere Dimako herrian bildutako ehun koplaren berri ematen du 1935. urteko liburuan. Hona hemen Lekuonaren pasartea:

> El afán ironizante ha hecho que las coplas de esta clase estén integradas casi siempre de solo elemento intencionado desde el principio hasta el fin, con exclusión total de elemento pintoresco. De cien coplas de *trikiti* o pandereta, recogidas en Dima, sólo 12 están dispuestas con elemento pintoresco en la primera parte sin enlace racional con la segunda. Otro tanto ocurre con el coplario de Zeanuri. Algunas pocas coplas hay que por el contrario están igualmente integradas de elemento pintoresco en su primera y segunda parte.

Zeintzuk dira Manuel Lekuonak erabili zituen Dimako ehun kopla hauek? Artikulu honetan frogatuko dugunez, *Colamus carmina nostra* bildumakoak dira. Bilduma horretan 81 kopla zerrendaturik daude. Kopla horiek herri-koplak dira, batean eta bestean berdintsu ematen direnak. Kopla horiek argitaratzea da gure lanaren helburu nagusia. Herri bakar batean bildu ahal izateko bilduma polita da ia ehun ale osatzen dituena[1].

2. Eskuizkribuaren ezaugarriak

Colamus carmina nostra bilduman, zortzi orrialdetan, 81 zenbakitan, Diman bildutako dantza-

koplak daude transkribaturik. Orrialde bakoitzean, letra ederrean, gehienetan hamar kopla daude transkribaturik. Zortzi orrialdeetan bi zutabetan daude koplak. Zutabe banatan, gehienetan, bost kopla daude. Hona zehatz-mehatz nola dauden transkribaturik: lehen orrialdean, 1-10 zenbakira bitartean, lehen hamar koplak; bigarrenean, 11-20ra bitartean, beste hamar kopla; hirugarrenean, 21etik 30era arteko zenbakietan, beste hamar kopla; laugarrenean, 31tik 40ra bitarteko zenbakietan, beste hamar kopla; bosgarrenean 41etik 50era bitartean beste hamar kopla; seigarrenean 51tik 62ra arteko zenbakietan hamabi kopla; zazpigarrenean 62tik 71ra, beste hamar kopla; zortzigarrenean 72tik 82ra bitartean beste hamaika kopla. Orrialde guztien bukaeran *Dima'koak* zehaztasuna dator.

Guk artikulu honetan zenbaki guztiak errespetatu ditugu, nahiz eta bi zenbakitan, 50 eta 76an, bi kopla agertzen diren. Jatorrizko testutik ere ahalik eta aldaketarik gutxien egin dugu. Jatorrizko testutik puntuazioa eta ortografia aldatu dugu. Lehen koplak, esaterako, honelaxe daude transkribaturik:

1
Bedaŕik edeŕena da
soloan garie.
Andrarik onena da
Birjina Marie.

2
Antonio'k koplak kopla
dirue boltzara.
Amaika mutil zoro
batzen da plazara.

Bi kopla hauetan ikusten da garai bateko ortografia. Eskuizkribuko *Bedaŕik edeŕena*, esaterako, *bedarrik ederrena* bihurtu dugu; eskuizkribuko *Antonio'k* ere *Antoniok* bihurtu dugu. Ortografia gaurkotu dugu, baina testua errespetatu dugu betiere. Hitzen bat aldatu dugunean, oin-oharrean jarri dugu eskuizkribuan datorren forma.

3. Irudia duten hamabi koplak

Manuel Lekuonak *Literatura oral euskérica* liburuan dioenez, hamabi kopla daude irudidunak. Kopla horiek hauexek dira: 1, 6, 21, 22, 24, 28, 36, 40, 44, 48, 49, 54. Puntu honetan aipatu ditugun hamabi kopletan lehen erdiaren eta bigarren erdiaren artean jauzia dago:

Bedarrik ederrena da
soloan garie.
Andrarik onena da
Birjina Marie.

Kopla honetako lehen erdian soloan garia belarrik ederrena dela adierazten da. Konparantza eginez andrerik ederrena Birjina Maria dela esaten da bigarren erdian. Irudiak eta pentsamentuak bat egiten dute egitura sintaktikoan. Bat egite hau ez da ohikoena. Eman dezagun beste adibide bat:

Santa Luzietan gaba da luze,
San Bernabetan egune;
norbera ondo egonez gero
ez da erruki lagune.

Santa Luzia eguna jostunen eta itsuen eguna izan ohi da, abenduaren 13an. Abenduko egunak argi-ordu gutxikoak. Abenduko eguna laburra izan ohi da, gaua, ordea, luzea. Santa Luzia egunak neguko solstizioa hurbil du. San Bernabe eguna, ordea, ekainaren 11 da. Udako solstiziotik hurbil dagoen egun honetan eguna luzea da eta gaua laburra. Pertsonen gorabeherak ere, urteko egunen antzera, handiak izan ohi dira. Pertsona gehienei, ordea, ez zaie ardura gainerakoen ilunaldiak...

28
Arantza baltzena da
lenengo lorea,
damutzen jakonari
Jaungoikoak obea.

Manuel Lekuonak zioen *elemento pintoresco* edo irudia argi dator kopla honetan. Dantza-kopla hau ez dugu bestetan aurkitu. Lehen kopla erdian izadiko elementu bat dator, udaberrian loratzen den lehen lorea: arantza beltzarena. Bigarren erdian *elemento intencionado* argia dator.

Puntu honetan zerrendatu ditugun hamabi kopla hauek argi frogatzen dute Manuel Lekuonak erabili zuen Dimako kopla-saila *Colamus carmina nostra* bildumakoa dela.

4. Kopletako euskara dela eta hitz bi

Puntu honetan zehaztasun gutxi batzuk bakarrik emango ditugu. Diman bildutako kopla hauetan ia ehuneko ehunean Dimako euskara agertu arren, badira beste ukitu batzuk ere. Zenbait hitz arratiarrak dira inolako dudarik gabe *sartankilla*, esaterako, "zartagina" esateko; *bonbaie*, *arrasti* "arratsalde" adierazteko, "bonba", *paraje zelaie*, esaterako, "paraje laua" adierazteko; *alagalakoak* "egokiak" adierazteko. Aditzak ere Bizkaikoak dira gehienetan. Deklinabide atzizkiak –egaz (*projimuegaz*) edo *alargunagaz* (52. kopla), *buzten zuriegaz*, *gona gorriegaz* (72), 15. koplan, ostera, *batekin* eta *txitarekin*; 18. koplan *norekin*. 26 koplan datorren *–tzean* atzizkia (*pekorotz batzien*) ere guztiz arratiarra dugu. Atzizkietan *–gaitiño* atzizkiak –gatik adierazteko Arratiakoa dugu; 13. koplan, ostera, *–gaitik* aurkitzen dugu.

Adizki batean edo beste Gipuzkoako eredua ere aurkitzen da. 56. koplan, esaterako, *ez det ikusi* aurkitzen dugu. Hamargarren koplan, esaterako, *engañatzen zaitu* aurkitu beharrean *engañetan zaitu* Arratiakoagoa dala begitantzen zaigu.

5. Dimako kopla zerrenda

Puntu honetan koplak jatorrizko zenbakiarekin jarriko ditugu. Laurogei kopla hauek sorta polita osatzen dute. Kopla askotan garai bateko diru eta bizibideak ere adierazten dira. Hirugarren koplan, esaterako, Antonio Goitia txarrabeta jole edo "bigolineru"aren gainean hitz egiten da. Biolina zortzi mari gaitik edo *zortzi marigaitiño* jotzen omen du. *Zortzi mari* esaten denean "zortzi marabedi" ulertu behar da. 73. kopla balada erlijiosoetan agertzen da, batez ere.

1
Bedarrik ederrena da
soloan garie.
Andrarik onena da
Birjina Marie.

2
Antoniok koplak kopla
dirue boltsara,
amaika mutil zoro
batzen da plazara.

3
Antonio Goitia
bigolinerua,
zortzi marigaitiño
joten dau soñua.

4
Bitorin neska gitxi dago
Millerlen bapebez,
Otxandion badagoz baña
ogirik egiten jakin ez.

1 6

1

Bedarik ederena da
Soloan zarie.
Andrarik onena da
Birjina Marie.

2

Antonio'k koplak kopla
Derue boltzara
Amaika mutil zoro
batzen da plazara.

3

Antonio Goitia
Bigolinerua
Sortzi mari gaitiño
Joten dau soñua.

4

Bitorin neska gitxi dago
Miterlen bapebez
Otxandio'n ba dagoz bana
Ogirik egiten jakin ez.

5

Otxandio ta Ubide
Arazola partetik,
Pobreen fortunea
Beti kokotetik.

6

Axpe Arazola'tik
Mañari bitarte,
Arautza tortilea
Sartankila bete.

7

Antxine ezan neuntzen
Mari eskrupulu
Gabeko eroldea
Eztala seguru.

8

Gabian eroldan eta
Goizian lo gure,
Etzara zu mutila
Osasunen gure.

9

Abustin kire maro
Dendari karue,
Sonbreru baltza eta
Sinta moradue.

10

Edera zareala
Pentzetan ba-dozu,
Izpilu faltso orek
Engañatzen zaitu.

11

Eder edéra baño
Oba da conbeni.
Edérak kendu leio
Buruko sentzimi.

12

-Maritxu nora zuaz
Eder galantori
-Itúrira, Bartolo.
Nai bozu etori.
- Ter dago itúrian?
- Ardaotxo zurie
Biok edango dogu
Nai dozun guztie.

13

Eriotzeaz gauza bat gaitik
Enagoala kontentu.
Aberatzari diruak gaitik
Ezin leio ta parkatu.

14

Aberatz órek diruak ditu
Probeak umildadea.
Progimuegaz ondo on bear
Zabalduteko atea.

15

Amak eskondu naiela
Neure moduko batekin.
Dotea emongo euztela
Ilo bat bost txitarekin.

16

Antxine bota neuntzan
Astoari plana
Anka luzeak eta
Lepo im kana.

17

Neure laztanak jaten din
Matukiekaz ogie
Oztera bere eukiko din
Luze ta lurde garie.

18

Zatan lei alegre danak
Criste egon da ez dau probetxu
Gazte zoroak eztau falta
Norekin entretenidu

19

Eskondu nintzanian
Bost gona nintuen
Bi prenda ipiñ ta
Bi saldu nintuen.

20

Olla faltau yako
Mari mondrongori
Buztena pardo pardo
Papaia belegi
Aren aiautzetxoak
Bolea dirudi

Donna koak

21

Domingo de domeka
Iztelena lunez
Ormetveko klaritak
Astoak jan gurez

22.

~~[illegible]~~
Dimetik Jórera
Parage zelaie
Jórek bota deutzo
Dimeri bombaie.

23.

Hita-semeak trabenan dagoz
Ama-alabak jokiran
Ostera bere egongo dira
Erópa zarak kakuan.

24.

Santa Luzietan gaba da luze
San Berhabetan egune
Norbera ondo egon ezkero
Ezta eruki lagune.

25

Arako antziñeko
Bioren kontuek
Ixilik egon aren
Eztaukaz aiztuek.

26

Atsoa ta agurea
Alkaren atzian
Basora juan dira
Pekorotz batzian.

27.

Atsoa ta agurea
Asaratu dire
Atso demoniñoak
Bargetatik tire.

28

Arautza baltzena da
Lenengo lorea
Damutzen jakonari
Jaungoikoak obea.

29

Arako zeuk gure
Ta neuk eneuenean
Berba labanik asko
Zeukan zuk miñean

30

Ama buruen min dot
Ez-ezan aitari
Atzoko eroldeak
Egin dauzte niri.

5
Otxandio ta Ubide
Arrazola partetik,
pobreen fortunea
beti kokotetik.

6
Axpe Arrazolatik
Mañari bitarte,
arrautza tortillea
sartankilla bete.

7
Antxine esan neuntzun,
Mari Eskrupulu,
gabeko erroldea
ez dala seguru[2].

8
Gabian erroldan da
goizian logure,
ez zara zu, mutilla,
osasunen gure.

9
Abustin Kirremarro
dendari karue,
sonbreru baltza eta
sinta moradue.

10
Ederra zareala
pentsetan badozu,
ispillu[3] faltso orrek
engañatzen zaitu.

11
Eder-ederra baño
oba da konbeni,
ederrak kendu leio
buruko zentzuni[k][4].

12
–Maritxu, nora zuaz
eder galantori?
–Iturrira, Bartolo,
nai bozu etorri.

–Zer dago iturrian?
–Ardaotxo zurie.
–Biok edango dogu
nai dozun guztie.

13
Eriotzeaz gauza bat gaitik
ez nagoala kontentu[5],
aberatsari diruak gaitik
ezin leio ta parkatu.

14
Aberats orrek dituak ditu
probeak umildadea.
Projimuegaz ondo on bear
zabalduteko atea.

15
Amak ezkondu naiela
neure moduko batekin,
dotea emongo eustela[6]
ollo bat bost txitarekin.

16
Antxine bota neuntzan
astoari plana,
anka luzeak eta
lepo iru kana.

17
Neure laztanak jaten deu,
mallukiegaz ogie,
ostera bere eukiko deu
luze ta linde garrie.

18
Zatan lei alegre danak
triste egonda ez dau probetxu,
gazte zoroak ez dau falta
norekin entretenidu.

19
Ezkondu nintzanian
bost gona nintuen,
bi prenda ipiñi ta
bi saldu nintuen.

20
Olloa faltau jako
Mari Mondrongori
buztena pardo-pardo
paparra bellegi,
aren arrautzetxoak
bolea dirudi.

21
Domingo da domeka
astelena lunes,
Ormetxeko Klaritak
artoak jan gura ez[7].

22
Dimetik Iorrera
paraje zelaie,
Iorrek bota deutso
Dimeri bonbaie.

23
Aita-semeak trabenan dagoz
ama-alabak jokuan,
ostera bere egongo dira
erropa zarrak kakuan.

24
Santa Luzietan gaba da luze
San Bernabetan egune,
norbera ondo egonez gero
ez da erruki lagune[8].

25
Arako antziñeko
bioren kontuek,
isillik[9] egon arren
ez dauka[da]z[10] aiztuek.

26
Atsoa ta agurea
alkarren atzian,
basora juan dira
pekorotz batzian.

27
Atsoa ta agurea
asarratu dire,
atzo demoniñoak
bargetatik tire.

28
Arantza baltzena da
lenengo lorea,
damutzen jakonari
Jaungoikoak obea.

29
Arako zeuk gure ta
neuk ez neuenean,
berba labañik asko
zeunkan zuk miñean.

30
Ama buruen min dot
ez esan aitari,
atzoko erroldeak
egin dauste niri.

31
Euskeraz kanteuko dot
au da bigarren bertsoa,
onexek emongo dautsu
jantzan eiteko gogoa[11].

32
Leiotxu bet egin beot
itsasoaren[12] parean,
andixik ikusteko
neure laztana noiz doan.

33
Soldadu noa soldadu
ontzi barrien soldadu;
ez dot juan gura baña
eroango neure seguru.

34
Oraingo mutiltxoak
bana-banakoak,
lapiko tapatzako
alagalakoak.

35
Ibilli ta ibilli
ezin dot eralgi,
errotara juanda
zaie[13] dot ekarri.

36
Ortuen perejille,
saleruen gatza;
ekarri Mari Pepa
jan de[i]gun lebatza.

37
Negar da negar dago
Errosa gurea,
katuek jan deutsela[14]
bart lebadurea.

38
Anton errementari
bentara[15] lo doa,
urrea dalakoan
plomoa daroa.

39
Errosa, ez eidazu
katue mankatu,
saguek eroateko
katue beogu.

40
Itsasoan ure lodi
ez da ondarrik agiri,
neure laztana ikustearren
paseuko ninteke ni andik[16].

41
Ze mutil ankaluze
begi arranpalo[17],
tabernara juanda
negarrez ei dago.

42
Maritxu Petrolina
Olabarrikoa,
katuek jan deutsela
surteko taloa.

43
San Blas pasau dan urte bi,
Abadiñora nindun ni,
denpora txarrak emonda
ez nintzen ondo ibilli[18].

44
Mendi altuen edurre,
bota surtera egurre.
Alaba galanten amak
mutil zantarren bildurre.

45
Aita aita da ta
suzulunberde,
ama ama da ta
masuste berde.

46
Aite joan da Bituriera
ama lepoan artute,
aite etorri da Biturietik
ama bidean galdute.

47
Aita gureak amari
gona gorrie ekarri,
luze dala, labur dala,
garri-garritik erdi bi.

48
Errekan dago arrie,
aren gañean txorie,
neskatxa koloregorrie
mutillen engañagarrie.

49
Erreka baztarreko
lirio lorea;
ez naz ederra baña[19]
bai ederzalea.

50
Olloa faltau jako
Mari Mondrogori.
Señale onak ditu
argitu baledi:
buztena luze-luze
paparra bellegi,
aren arreutzetxoak
bolea dirudi.

51
Zeaniko errien
iru neskatille,
kalabazea janda
lodituten dire.

52
Txikitine ta polite
Lupetzako Pantxike;
alargunagaz ezkontzia
asko sentiduko neunke.

53
Altuen da San Kristobal
bajuen Madalena,
aien bien bitartean
Domitxuko taberna.

54
Udabarriko lorea
eder maiatzean.
Ez egunez etorri
erdu arratsean[20].

55
Altuen San Bernabe
bajuen Gordobil,
Otxandioko plazan
tanboliña dabil[21].

56
Aspaldian ez det ikusi
Donostiko Fidela.
A baño gurago neunke
txarri onaren gibela.

57
Zorrontzan salada batek
egin dau gona gorrie,
barrenetik imiñi dautso
agiñadure zurie.

58
Bitorie da Alaba
alargun batek eukezan
ederrak iru alaba.

59
Altzak orrie zabal
Begoñe gañean,
asko be zabalago
Basobaltz aldean[22].

60
Arin-arin duela
itsuen soñue,
otsek apurtuten dau
zapata-zorue.

61
Goroziko etxe baten
zazpi koltza oge baten,
mutil bi[k] ipiñi dauz
deskantsatzen[23] apur baten.

62
Sisilio Benziko
soso armario,
gantzontzillo borlea
ankatik dario.

63
Jose Benito saleue,
Algortan esamiñaue,
Portugaleteko barran
brantza[24] estue pasaue.

64
Nabarriz-Anbotoko
Eulesti-mendi.
Aretan iruretan
axe otza sarri.

65
Laztanen portalean
dagoz arbola bi:
bata da laranjea[25] ta
bestea madari.

66
Inkirrinki soñue
Belensin gorako;
zapatako zoruek
egin uderako.

67
Maritxu Petrolina
ze enbra polite.
Buruen pañeloa
moño ipiñite.

68
–Tortolo Makastiko,
nor dozu nobie?
–Erramon Garatzeko
koloregorrie.

69
San Adrian, San Adrian,
agostuaren erdian,
neu bere antxe nengoan
eurian zan arrastian[26].

70
Gorengo[27] kamarara
bidea labana,
galdarean sartzeko
mutil barrabana.

71
Isillik[28] egon adi,
faltso[29] arlotea,
igaitik jaukoat nik
kokotean sarna.

72
Astotxo bat baneuko
buzten zuriegaz,
Ermure joateko
gona gorriegaz.

73
Aldats bat igarota
zelai eder baten,
Kristo topatu nuben
mezea emoten.

74
Aizea fresko dago
Arralde ganian,
arkondara bustie
baleuko soñean.

75
San Antonio, San Antonio,
txarrie gexo danean.
San Antonio ez da esaten
urdaie jaten danean.

76
Aizeak[30] ta euriek
atera bear begiek,
beko lupetzan galdu do[d]az
lagunik erdiek.

77
Auxe da despedidea,
despedide onen tristea,
egin badot berba txarto
parka eske[31] nago jentea.

78
Nekatilla morenea,
maronezko gonea,
abarka-tralla baltzakin
dirudi probinzianea.

79
Orratzaren punteak
irabazi gitxi,
endemas[32] trabenara
bidea badaki.

80
Negar da negar dago
Errosa gurea
katuek jan deutsela
bai lebadurea.

–Ez egizu, Errosa,
ez egin negarrik,
ez zara gelditukо
labadure barik.

81
Errementari androk
goizean-goizean,
txikerdi aguardiente
arnasa batean.

OHARRAK

[1] *Colamus carmina nostra bilduma*, guk dakigula, bi lekutan dago banatua. Puska bat Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean eta beste bat Aita Donostiak zuen bere paperen artean. Dimako bilduma Aita Donostiaren paperen artean aurkitu dugu.

[2] Jatorrizko dokumentuan *eztala seguru*.

[3] Eskuizkribuan *izpillu* dator.

[4] Kopla hau beste modu batera da gehienetan: Eder-ederra baño/ oba da komuna,/ ederregiak kendu lei/ buruko zentzuna.

[5] Eskuizkribuan *enagoala kontentu*.

[6] Eskuizkribuan *euztela*.

[7] Eskuizkribuan *gurez*.

[8] Jatorrizko dokumentuan *ezta erruki lagune*.

[9] Eskuizkribuan *ixillik*.

[10] Eskuizkribuko *eztaukadaz aiztuek* horrek "ez daukadaz ahaztuak" adierazi nahi du.

[11]Kopla honetan *bertzoa* eta *dautzu* datoz jatorrizko eskuizkribuan.

[12] Eskuizkribuan *itxasoaren* dator.

[13] Eskuizkribuan *saie*.

[14] Eskuizkribuan *deutzela*.

[15] Eskuizkribuan *bentana* irakurtzen da.

[16] Eskuizkribuan *itxasoan ure lodi* dator.

[17] Eskuizkribuan *begie aŕanpato* dator.

[18] Eskuizkribuan *enintzen ondo ibilli*.

[19] Ezkuizkribuan *enaz ederra baña*.

[20] Eskuizkribuan *arratzean*.

[21] Eskuizkribuan *Gordobil* jarri arren *dabill* dator.

[22] Eskuizkribuan *baso baltz aldean*.

[23] Eskuizkribuan *deskansatzen*.

[24] Beste aldaera askotan *trantze estue pasaue* izan ohi da.

[25] Jatorrizkoan *larangea*.

[26] Eskuizkribuan *aŕastiyan* dator.

[27] Eskuizkribuan *goirengo*.

[28] Eskuizkribuan *Ixillik*.

[29] Eskuizkribuan *faltzo*.

[30] Eskuizkribuan *Azeak*.

[31] Eskuizkribuan *parkeske*.

[32] Eskuizkribuan *endemaz*.

IRATXE ORMATZA IMATZ

Bazkaria

Aiora heldu zan lehenengo. Mahaia erakutsi eutsan jatetxeko zerbitzariak. Barruko ahots sorgorrari ez entzuteko-edo, ogia bilatu eban. Platerak, edalontziak eta koilarak-eta baino ez, mahai gainean. *Berria* irakurteari ekin eutsan telefonoan. Ingurukoai begiratzea eta zerbitzarien beharra aztertzea zeregin azalekoak ziran; arinegiak, barrukoa apaltzeko. Besoa altzau eban hainbat aldiz, txakolina eskatzeko, eta ogia eskatzeko (ahaztuta eukan ogia ordurako). Behar asko eukien, antza, zerbitzariek; inork ez eutsan ikusi besoa aidean astintzen. Besoa mobiduten ebala uste baeban be, eskuko atzamar txikiak baino ez erabilzan aidean. Baimena eskatzen ebilzala itxurea eukien.

Telefonoko egunkarian eukazan sartuta begiak barriro be. Karameluagaz gogoratu, eta ahoan sartu orduko, txikituta eukan. Akabukoa zan. Hiru zutabe irakurri ebazan errenkadan, albisteak baztertuta.

'Kaixo' entzun eban, eta 'kaixo', besteak. Ahoa itxita, hasperen txiki-txikia bere artean egin, eta aulkitik jagi zan, lau mosuak eskintzeko Elisabet eta Tellori. Bularraldea zabaldu jakon, eta apur bat gehiago itxi bere bai. Hori posible bada. Dotore egozan biak. Dotore jantzita, eta orrazkera zainduta. Aiorak ulea batuta eukan, badaezpadan, uleek iges egin ez eioen. Menua banandu eutsen zerbitzariak; kriantza ardaoa eskatu eutsien menutik kanpo.

Bikote ederra osatzen eben beste biek. Altuak ziran, altuegiak izan barik; sorbaldak garaiera berean, eta gorpuzkerea be antzekoa, argalak, argalegiak izan barik. Telloren begiak berde argiak ziran, adi, beti entzuteko prest balegoz lez. Eta sakonean, ñirñir bat, erdi ezkutuan, barre eragiteko zerbait esateko baleukie lez, edozer egoera hartu eta ironiajantzia jarteko prest. Neurri handi batean, ameslaria be bazan Tello. Lurrekoa zan, ostera, Elisabet. *Enpresariales* ikasitakoa, lauki itxurako arpegia, ezpanak aho barruan, eta bizimoduz, praktikoa, oso praktikoa. Soinean, beti fraka bakeroak eta nikiak, inoiz be ez blusak edo alkondarak. Bazkarirako, esaterako, blusa bat ekarri eban, oihal zurrunekoa, eta botoi guztiak itxita. Modaren arabera, bere arabera.

Donostiaz egin eben berba, han bizi ziran-eta Elisabet eta Tello, zinemaldiaz, autore-filmez, jenteak argazkietan agertzeko daukan grinaz, aspaldi ezagututakoez be egin eben berba. Argazkien gaiak horra eroan ebazan. Alazne agertu zan berben artean. Hirurok ezagututakoa. Aiora, aspaldi, Tellogaz bizi izan zan Donostian, hile batzuk baino emon ez baebazan be. Zerbitzaria etorri zan, eta bakotxak zer gura dauan esan eutsan. Entsalada bi eta lekak; lebatza, makailaoa eta tximinoiak. Elisabetek Alazne hartu dau ahotan barriro, inori aurre egin barik,



kultura-munduan zelan egin dauan aurrera kontau dau; igarri jakola esan dau Aiorak orain hamabost urte gora egiteak ase egiten ebala, beste ezerk ez bezala. Orduan bere, ez ebazala berbak alperrik erabilten; ezta personak be. Aiorak bere artean gorde dau zenbat biderrez jokatu eban Alazneren alde, Aiorak berak jakin barik. Alazne be Bilbokoa zala-eta, horrek halako batasun bat ekarriko baleu lez, gipuzkerea nagusi zen mundu haretan. Tellok barrez esan dau azkenengoz Alaznegaz topau zanean, gipuzkera ederrean *hitz* egin *ziola*. Zukan, hori bai, donostiarra izateko bidean egoan-eta. Hirurek egin eben barre, eta zerbitzariari beste ardao botila bat eskatu be, bigarren platerari ekiteko.

Barrua nasaiago igarri eban Aiorak. Bihotzaren taupadak, halanda be, ozen egiten jakozan; lartxu, aukeran. Puntu-puntuan egoan makailaoa, eta antzean, Bizkaiko erara egindako saltsea. Taupadak lurruntzen hasi zan ardaoa, zelanbait. Halanda be, Elisabet altzau eta komunera joateagaz batera, zarratu jakon urdaileko ahoa Aiorari. Tello ikutzeko gogoari eutsi behar izan eutsan; bat-batean etorri jakon, Elisabet ikusmiratik urteteagaz batera. Tximinoien saltsa baltza okotzean eukala esan eutsan

Tellori; apur bat kendu gurean, guztiz zabaldu eban okotzean Tellok. Barre egin eban Aiorak, ozen. Eta urduri. Hamabost urteak tolestu jakozan, akordeoi baten antzean, ze Aiorari ez jakozan ahaztu etxean eukazan hirurak: Igor, Aiur eta Ane. Lehenago, Igor sartu jakon gorputzean, bihotzean, bizitzan, eta handik denporara, Aiur ernatu zen, eta gero, Ane: bere seme-alaba txikerrak. Hirurak eroiazan aldean, joian lekura joiala. Ez egoan, ez ebilen, inoiz bakarrik. Eta hirugarrena ez zalako etorri; osterantzean, ha be beragaz. Tellok lanagaitik galdetu eutsan. Dohain hori eukan Tellok, giroa nasaitzekoa, gozotan jarduteko txokoa eratzekoa, iluntze betean egongo balira lez, haizeak atsedena hartzen dauanean. Bere beharraren gorabeherak bete-betean kontetan egoala itzuli zan Elisabet. Lanetik deitu eutsiela-eta, errekadu bat egin beharko ebala bazkaldu eta gero, ordubete-edo beharko ebala. Berbaz eta janez segidu eben hirurek.

Heldu zan momentua, ordubetekoa. Jatetxean bertan geratu ziran biak. Aiorak whiski txiki bat eskatu eban, eta Tellok, pattarra. Barriro, akordeoia batu egin zan, hamabost urte tolesturetan gordeta. Batuago egozan Aiora eta Tello, mahaiaren alde banatan. Hogei zentimetrotik berrogeta hamarrera arteko tartean mobiduten ebezan eskuak, besoak; alkar ikutu barik, alkarri distantziatik eragiten. Politikaz eta kulturaz egin eben berba, Euskal Herriaz. Bataren eta bestearen txandea gordeaz, bestearen ikuspuntua adi entzunez, eta norberaren diskurtsoa hezurmamitu guran. Berrogeta hamar zentimetroko distantziatik begiratzen eutsien Aioraren begiek, milimetro bat bera be parajetu barik. Tellok mantso josten ebazan berbak, ahots-tonu grabe haretan, hamabost urte lehenago oherako, laztanerako bidea leundu eban tonu berberean. Eta barriro be, utopiaz jardun eben, kultura, euskal kultura jakina, gizartearen ernamena zala, eta txikitasunean, eragin handikoa zala. Tello eta Aioraren, bakotxaren, eragina gizartean zabaltzeko gogoa erakusten eben euren berbek, azken batean. Artearen, literaturearen, musikearen, dantzearen motorraren lurruna behar eben aurrera egitekotan, eta iruditzen jaken horretan, batuta egozala. Inor barik, eurak bakarrik.

Elisabetek egunerokora ekarri ebazan; goazen kafe bat hartzen, edo beste zer edo zer, beste taberna batera; Aiora, zuk jakingo *dezu* nora.

Gauean, begi berdeak topau ebazan barriro, Igorrenak. Kabian egoan, ostera be. Laztanak, mosu umelak eta dirdira sakabanatu eutsazan Igorren gogoak Aioraren narruan, azaletik gora zein behera. Munduan zehar ibili eta gero, portua abegikorragoa zan.

ENEKO URIZAR

Gozokiak poltsikoetan

Laster Errege eguna,
bezperan kabalkada. Ai ama!
Patrikak gozokiz beteak
ziztu bizian etxera
gameluentzat ur pitxerrak
alkohola barra-barra
monarka bizardunentzat.
Aurrekoan
Laurak errege egun bezpera bat
kontatu zigun afalorduan.
Malkoz beteta
utzi zizkidan poltsikoak;
Santiagoko beilatokiko
gau ilun hartan
lagun guztien besarkadez gain
karameluak jaso zituen Laurak,
kolore anitzetako azukre gozoak
poltsikoetan pilatuz.
Ez zen gozotasuna nahikoa izan
bere ama erretzen laguntzeko.
Gutxi gogoratzen du
orain dela bi urteko
beilatokiko iluntasun hartaz.
Umea ez izan arren, erregeoi
ekar ezin ziezaioketen
bakarra eskatu zien.
Halere, esna-aldi hartan
ez zuen oparirik jaso.
Jakina denez,
lo ez baldin bazaude
erregeak ez dira ausartuko.
Erregeak ez dira inoiz
beilatokiko alkohola
edaten ausartuko.
Han lorik ez dagoelako
edo lo dagoenik ez delako.
Begiak itxita dutenak
inoiz iratzarriko ez direlako.
Iluntasuna barruan gordez
bere ama suarenean utzita
eta patrikak gozokiz beteak
negar egin ezinean
Laura etxera joan zen.

JUAN RAMON MADARIAGA

Mendazko bizkotxoa

Bizitzak beste espazio batzuk ere baditu. Luzeegiak batzuetan, edota ñimiñoegiak, kontzentratuegiak bestetsuetan. Etxetik urruntzen garenean eta toki ia absurdoetan arnasten hasten garenean bestelako sentsazioak izaten ditugu. Parajeak beldurgarriak ere izan daitezke, edota magikoak.

Alturak horrelako estimuluak eskaintzen ditu. Eta alturan izandako askok halako haluzinazio baten garapen bitxiak sentitu dituzte. Izan ere, une kritiko eta desesperatuetan, euren fisiologia osoa mugan dela, adiskide baten presentzia sentitu dutela diote.

Ez ziren bakarrik sentitzen. Irudikapen edota sentipen horri *Hirugarren Gizakia* esaten zaio. Horri ere neurozientifiko alemanek *doppelgänger* esaten diote: norberaren gorputzetik kanpoko espazioan kontzientziaren hedapena.

Everest mendian horrelako asko entzun dira beti. Misteriotsuak izan dira guztiak. Lehen lekukotasuna honako hau izan zen: Frank Smythe-k 30eko hamarkadan Everestera egin ziren lehen hiru espediziotan parte hartu zuen, eta 1933an bakar-bakarrik jo zuen saio bat munduko mendirik altuenaren tontorrera, eta 8.573 metroraino ailegatu zen. Muga horretan, berak haluzinazioak jasan zituela esan zuen behin.



ACCLIMATIZATION
Training Camp on the Mera Col, with Ama Dablam in background PLATE 17

Eguraldi txarrak bi gauez konfinaturik izan zituen Frank Smythe eta Eric Shipton tontorretik ehunka metrora jarrita zuten VI. kanpamentuko dendaren barruan. 8.351 metrotik abiatu ziren gailurrerantz. Altura, oxigeno beharrizana, logura eta janari urritasuna arazo larri bilakatu ziren. Oso ahul zeuden, ospitale batean egoteko moduko pertsonak ziren.

8.500 metrotan, Smythek oihua entzun zuen. Bueltatzean, pioletaren gainean total deseginda ikusi zuen Shipton. Ezin zuela aurrera segitu esan zion. Smythek kardiopatia zuen eta ez zegoen baldintza onenetan, baina halarik ere aurrera jarraitzeko deliberoa hartu zuen, kosta lain kosta. Gorputz atalak dar-dar batean zituen, hatsanka zihoan, eta toraxaren barruan bihotza oihuka zuen.

Une zehatz batean, *mugara heldu naiz* esan zuen. Nahikoa zen.

Gerora hauxe kontatu zuen: "Eskalatzen egon nintzen denbora osoan, bigarren pertsona batek laguntzen ninduelako sentsazio bortitza eduki nuen. Hain indartsua zen presentzia hura, ezen nire bakardadearen sentimena erabat desagertu baitzen. Nire lagun horri soka baten bidez lotuta nengoela ere iruditu zitzaidan; hortaz, jausiz gero berak geldiaraziko ninduela. Etengabe atzera begiratzen nuen, eta behin goiko punturik altuenera helduta, mendazko bizkotxo zati bat jaten saiatzeko jesarri nintzen, eta hala, bitan banatu nuen artatsu. Bigarren zatia eskuan eraman nuen denbora luzez, eta ia beldurtu nintzen nori eman ez zegoela deskubritu nuenean. Presentzia hura oso indartsua, abegikorra eta lagunkoia zela iruditu zitzaidan, eta VI. kanpamendua begien aurrean agertu zenean, mundu honetakoa ez zen lotura hura apurtu egin zen. Bat-batean, erabat bakartuta sentitu nintzen".

Kasu batzuetan, sindrome horrek, ondorenean, zoriontasunezko puntua ekartzen du. Bestelako poztasuna sentitzen da. Gutxitan halakoa. Izan ere, zoriona ez da askotan sentitzen, edo bai?



XABIER BOVEDA

Mario Benedetti (Paso de los Toros, 1920 - Montevideo, 2009)

Benedetti 1920ko irailaren 14an jaio zen Paso de los Torosen, Tacuaremboko departamenduan, Uruguain. Italiar tradizioari jarraituz bost izen jarri bazizkioten ere, Orlando, Hardy, Hamlet eta Breno ezabatu, eta berba bi baino ez zituen erabili sinadura guztietan: Mario Benedetti.

Lau urte zituela, familia Montevideora joan zen. Hantxe hazi zen, eta hantxe itsatsi zitzaion betiko eta sakonki montevideoar izatearen sentimendua. Horregatik, ez da harritzekoa haren fikziozko lanen kokagune nagusia hura izatea, eta pertsonaia nagusiak ere Montevideoko biztanle arruntak.

Hala ere, 1938 eta 1941 bitartean Buenos Airesen bizi izan zen, eta argitaletxe bateko takigrafo beharrean ibili zen. Bertan erabaki ei zuen idazle izatea, eta lehenengo poema liburua idazten hasi zen: *La víspera indeleble* (*Bezpera suntsiezina*, 1945). 1946an Luz López Alegrerekin ezkondu zen, eta 60 urtez, hil arte, bere betiko laguna izango zuen.

Montevideora itzulita, kazetaritzan jardun zuen: 1948an *Marginalia* literatura aldizkaria zuzendu zuen, eta hurrengo urtean *Número* aldizkariaren erredakzio kontseiluan parte hartu zuen. Aldizkari hori funtsezkoa izan zen 45eko belaunaldiaren sorrera eta garapenean, zeinean, besteak beste, Benedettiz gainera, idazle hauek izan ziren: Carlos Martínez Moreno, Mario Arregui, Angel Rama, José Pedro Díaz, Armonía Somers, Idea Cilariño, Sarandy Cabrera, Ida Vitale, Carlos Maggi eta Emir Rodríguez Monegal.

1949an ere, Benedettik bere lehenengo ipuin liburua argitaratu zuen, *Esta mañana* (*Goiz honetan*), eta urtebete geroago *Solo mientras tanto* (*Bien bitartean bakarrik*) poema liburua. Benedettik, urte batzuk igarota, hauxe esan zuen bere ipuingintzaz: “Berrogeita bosteko garai hartan ez zegoen ia batere aukerarik eleberriak idazteko. Baina, ostera, ipuinak argitaratu ahal ziren aldizkarietan, edota egunkarietako literatura gehigarrietan”.

1953an uruguaiarraren lehenengo eleberria agertu zen, *Quién de nosotros* (*Gutariko nor*). 1954 eta 1960 bitartean hiru bider hartu zuen *Marcha* aldizkariko zuzendaritza literarioa. Aldizkari hori Uruguaiko kultura eta politika bizitzan eragin handikoena zen, eta Latinoamerikako garrantzitsuenetakoa.

1956an argitara emandako *Poemas de la oficina* (*Bulegoko poemak*) liburuarekin Benedettik zirrara handia eragin zuen poesia uruguaiarrean, izan ere, gai "ez poetikoa" erabili zuen, prosaikoa, hizkera kolokiala aukeratu zuen, eta eguneroko bizitza berraurkitzen duen begirada berria jarri zuen gauza arruntetan.

1957an Europara irten zen lehenengoz. 1959an *Montevideanos* ipuin liburuarekin haren narraziogintzaren hiritartasuna nabarmentzen da. Urte berean Estatu Batuetara joan zen, eta han inperialismoaren aurpegi gordina ikusteak barrua inarrosi zion. Gainera, Mario Benedetti bera ez ezik, Latinoamerikako intelektual guztiak markatu zituen gertakari bat izan zen orduan: Kubako Iraultza. Hori erabakigarria izan zen idazle uruguaiarraren bilakaera literario eta politikoan, eta begiak Europan jarri beharrean Latinoamerikan jarrarazi zizkion, bere herriarekin bat egiteko, bere Uruguaiko errealitatea era ezberdinean ikusteko. 1966an Kubara joan zen bisitan, eta 1968tik 1971ra bitartean *Casa de las Américas* Kubako kultur erakundean lan egin zuen.

1959an *El país de la cola de paja* (*Lastozko isatseko herria*) saiakera liburuan Uruguai ofizialaren lehenengo gogoeta kritikoa egin zuen Benedettik. Hurrengo urtean *La tregua* (*Menia*) eleberria plazaratu zuen, eta zabalkunde handia izan zuen mundu osoan. Lan bi horietan kinka larrian zegoen gizartearen salaketa egin zuen.

Ordutik aurrera Benedettiren aktibitatea handitu egin zen. Idazle eta kazetari lanez gain, ezkerreko militantzia politikoan gero eta parte hartze handiagoa izan zuen. 1971n *martxoaren 26ko Independenteen Mugimendua*ren sortzaileetariko bat izan zen, geroago *Fronte Zabala* osatuko zuena. Alternatiba berri hori, hala ere, indarkeriak zapuztuta geratu zen, izan ere, estatu kolpea heldu zen 1973an, eta horrekin batera hamabi urteko diktadura gogorra.

Orduan, arrazoi politikoengatik herritik ihes egin behar izan zuen, eta erbestaldia Argentinan, Perun, Kuban eta Espainian igaro zuen. Obra asko eta genero guztietan idatzi zuen erbestean zegoela; euren artean honako hauek gailentzen dira: *Gracias por el fuego* (*Eskerrak suagatik*, 1965) eleberria, *El escritor latinoamericano y la revolución posible* (*Latinoamerikako idazlea eta iraultza posiblea*, 1974) saiakera, *Con y sin nostalgias* (*Nostalgiekin eta nostalgiarik gabe*, 1977) ipuin bilduma, eta *Viento del exilio* (*Erbestaldiko haizea*, 1981) poesia liburua.

1985ean demokraziarekin batera itzuli zen Benedetti Uruguaira. Erbestetik itzultzeak sentimendu berezi bat ekarri zion, "desexilioa", bere lan askotako gaia izan zena. Azken urteetan, jendearen onespena zuela, hainbat sari jaso zituen, haren lanak sakon sustraiturik baitzeuden herritarren artean. Emaztearen heriotza 2006an ukaldi gogorra izan zen, eta, tristuran murgilduta, ia erabat utzi zion idazteari. 2009an hil zen idazlea, Montevideon, eta dolu egun nazionala agindu zuen Uruguaiko gobernuak.

Taktika eta estrategia

nire taktika zuri begiratzea da
zarenetik ikastea
zaren hori maitatzea

nire taktika zuri mintzatzea eta entzutea da
hitzen bidez
zubi suntsiezina eregitea

nire taktika zure oroimenean geratzea da
ez dakit zelan ez zergatik
baina zure baitan geratzea

nire taktika leiala izatea da
eta zeu ere leiala zarela jakitea
eta elkarri itxurarik ez saltzea
oihalik eta leizerik sortu ez dadin
bion artean

nire estrategia, ostera,
sakonagoa eta soilagoa da
nire estrategia hauxe baita:
egunen batean
ez dakit zelan ez zergatik
azkenean zuk ni behar izatea

Alderantziz

Zu ikusteko ikara dut
zu ikusteko beharra
zu ikusteko esperantza
zu ikusteko kezka

zu aurkitzeko gogoa dut
zu aurkitzeko ardura
zu aurkitzeko segurantza
zu aurkitzeko zalantza hutsala

zu entzuteko premia dut
zu entzuteko poza
zu entzuteko zoriona
zu entzuteko beldurra

alegia,
laburbilduz
lur jota nago
eta alegera ere bai
agian lehenengoa
bigarrena bainoago
eta alderantziz
ere bai

Baina banator

Behin baino gehiagotan egotzia sentitzen naiz eta
egotzi nauen erbestera itzultzeko gogoa izaten dut
eta orduan iruditzen zait ez naizela
inongoa, inorena.

Izango ote da zantzu bat ez dudala lortuko
egundo gehiago erbesteratua ez izatea?
Han eta hemen eta edonon
beti izango dudala norbait zaintzen eta pentsatzen
Hau zertara dator hona?

Eta banator ostera agian nekea eta zorabioa parte-
katzera
babesik eza eta grina
baita nire arrangura kuota jasotzera ere
nire maitasun sari erreflexiboa
zinez ez dakit
seguru zertara natorren
baina banator.

Zergatik ez dago ilargira joateko bidaia gehiagorik?

Armstrong zintzoak pauso haiek eman zituenean
denok ohartu ginen nola mugitzen zen
trakets astun zoru zurixkaren gainean
ala apar harria zen? nork du gogoan?

tarte batez gogoetan aritu zen
eta eskafandrak edo dena delakoak
ez zigun haren begiak ikusten uzten
baina zin egingo nuke haren begiradak
nagitasuna edo gogorik eza adierazten zuela

zerbait azaldu zuen nonbait itzuleran
domina lore oihu eta girnalda artean
euforiaz esanarazi zioten hitzaldi
hotsandikoaz bestelako zerbait

zerbait esan zien nonbait bere nagusiei
zerbait garrantzitsua ustekabea

esate baterako, han goian nengoela
zonbi baten moduan bidez ilargian
nire jenerala nire koronela zuengan pentsatu nuen
eta bururatu zitzaidan ez dakit zergatik ote
hil egin behar zintuztedala albait arinen
banan-banan binan-binan eta abar

edo bi esaterako, han nenbilela heroi bat bezala
satelitearen zimur itsusi-itsusiak zapaltzen
pentsatu nuen horrelakoa behar zuela heriotzak
alegia heriotzaren paisaiak

edo hiru esaterako, argizagian nengoela
hara eta hona ezerezean ergel bat bezala
gizakirik ez izatearen nazka infinitua sentitu nuen
eta esan nion neure buruari: ze ostia egiten ari nauk hemen?

horrelako zerbait aitortu zien nagusiei nonbait
bere robot disidentearen ahots estreinatu berriaz
eta beharbada horregatik boteredunek atzeratu zituzten
sine diei ilargirainoko bidaiak

Idatzi gabeko gutunak

Idatzi gabeko gutunak samurrenak dira
sinesgarrienak bizienak
horrelakoak dira lotsaizuna
bere ontzitxoan geratzen delako
eta ez delako nahasmendua ereitera irteten

idatzi gabeko gutunak egiatienak dira
hain errukiorrak eta hain damukorrak
ilargi-intziri bihurtu ahal baitira

idatzi gabeko gutunak motzenak dira
hain babesgabeak eta hain moduzkoak

paragrafoak uzten baitituzte zainetan
puntu eta komak eztarrian
harridurazko parentesiak tinpanoetan

idatzi gabeko gutunak inoiz idazten badira
hitz gozo eta hitz gordinekin apaintzen dira
trikimailuetara jotzen dute sintaxi betean
eta esan gabe esaten dute esaten dutena.

Eta Jainkoa emakumea balitz?

Eta Jainkoa emakumea balitz?
galdetzen du juanek zirkin egin barik
tira tira jainkoa emakumea balitz
baliteke agnostiko eta ateook
buruarekin ezetzik ez esatea
eta erraiekin baietz esatea

agian haren jainkozko biluztasunera
hurbilduko ginateke muinkatzeko
haren oin ez brontzezkoak
haren pubis ez harrizkoa
haren bular ez marmolezkoak
haren ezpain ez igeltsuzkoak

jainkoa emakumea balitz besarkatu egingo genuke
haren urruntasunetik erauzteko
eta ez litzateke zin egin behar
heriotzak banatu arte
ze hilezkorra izango litzateke noski
eta ihesa edo izua igorri beharrean
bere hilezkortasuna erantsiko liguke

jainkoa emakumea balitz ez litzateke lekutuko
urrun zeruetako erreinuan
infernuaren atarian itxarongo liguke ordea
bere beso ez itxiak
bere arrosa ez plastikozkoa
bere maitasun ez aingeruzkoa
eskainiz

ai ene jainkoa ene jainkoa
betidanik eta betiko
emakumea bazina
zer eskandalu ederra
zer birao zoriontsu guztiz eder
ezin eta mirarizkoa

Euria ari du gezi gorriz

Euria ari du eragabe zirpilez
euria ari du gezi gorriz / kurloiz
euria ari du mundu honetako eta besteko albistez
euria ari du hits begi lehorrez
euria ari du mitxeletaz eta iragarpenez
euria ari du natura hilez eta bahituz
euria ari du gogotik
gogorik gabe

ez dakit zergatik euria ari duen euriak
alegia ez nekien
harik eta zuk xehe-xehe azaldu zenuen arte
betiko arbeltzar ilunean
baina betiko arbeltzarrean
ez du sekula euria aritzen

Itsasargia eta bestelako itzalak

Mamu biak, bata urdina eta bestea zuria, ohiko haitzuloaren aurrean gertatu ziren. Elkarri agur egin zioten isilik eta aurrera jarraitu zuten tarte handi batean, batak besteari izara zapaldu barik, nor bere hausnarketan murgildurik. Gau lanbrotsua zen, ez ziren bereizten zuhaitzak eta harresiak, baina han goian, oso goian, ilargia zegoen.

–Bitxia da –esan zuen bat-batean mamu zuriak–, bitxia da nola jada gorputza ez den norberaz oroitzen. Zorionez, ze norberaz oroitzen zenean sufritzeko izaten zen.

–Asko sufritu zenuen? –galdetu zuen mamu urdinak.

–Dezente. Begien aurretik joan zitzaidan arte, nire gorputzak zigarroen erredurak zituen bizkarrean, anestesiarik gabe erauzitako hiru hagin falta zitzaizkion, ez zuen ahazturik nola sartu zioten burua txiza eta gorotzezko ontzi batean, eta batez ere lantzean behin bere barrabiletara begiratzen zuen…

–O –izan zen mamu urdinak ahoskatu pentsatu edo hasperendu zuen silaba bakarra.

–Eta zuri? –galdetu zion besteak berriz– Zure gorputzak ere sufrimenduak helarazten zizkizun?

–Ez hainbeste nire gorputzak, baizik eta besteenek…

–Besteenek? Sendagilea al zinen?

–Ez hain justu. Ni borreroa nintzen.

Mamu zuriak gogoratu zuen han goian, oso goian, ilargia zegoela. So egin zion, bakarrik liluratzeko beharra zuelako. Baina ilargia ez da eguzkia.

Bere izara kutsugabearen mutur batekin gorroto izpia garbitu zuen begitik. Gero urrundu egin zen, zuri-zuri, lanbro babeslean igeri, Jainkoren baten edo ezerezaren bila.

Haritzaren ezker aldean

Ez dakit zuoi inoiz gertatu zaizuen

baina Jardin Botanikoa parke lokartu bat da
non norbera zuhaitz edo lagun hurko senti daitekeen
betiere aurreko baldintza bat betez gero.
Hiria lasai urrun izatea.

Sekretua da bermatzea demagun enbor batean
eta entzutea zarata hilak onartzen dituen airean zehar
nola dabiltzan tranbiak trostaka Millan eta Reyesen.

Ez dakit zuoi inoiz gertatu zaizuen
baina Jardin Botanikoak beti izan du
ametsetarako joera atsegin bat
intsektuak hanketatik gora igo daitezen
eta malenkonia besoetatik jaits dadin
batek ukabilak itxi eta harrapatu arte.

Azken batean sekretua gorantz begiratzea da
eta ikustea hodeiak nola lehiatzen diren adaburuak lortzera
eta ikustea habiak nola lehiatzen diren txoriak berenganatzera.

Ez dakit zuoi inoiz gertatu zaizuen
ai baina Botanikora ihes egiten duten bikoteak
taxi batetik jaitsi zein hodei batetik beheratu
gai garrantzizkoez mintzatzen dira arrunki
eta elkarri begietara so egiten diote sutsuki
amodioa tunel labur-laburra izan eta haiek
amodio horren barruan elkar begietsiko balute bezala.

Bi haiek adibidez haritzaren ezker aldean
(esan nezake almendrondoa edo araukaria
Pan eta Linneori buruzko nire hutsuneei esker)
hitz egiten ari dira eta antza hitzak
haiei begira gelditzen dira
izan ere haien oihartzunik ere ez zait niri heltzen.

Ez dakit zuoi inoiz gertatu zaizuen
baina oso polita da imajinatzea zer dioten
batez ere mutilak abartxo bati hozka egiten badio
eta neskak soropilaren gainean zapata bat uzten badu
batez ere mutilak hezur tristeak baditu
eta neskak nahi baina ezin badu irribarre egin.

Nago mutila esaten ari dela
Jardin Botanikoan batzuetan esan ohi dena

atzo udazkena heldu zunan
udazken eguzkia
eta zoriontsu sentitu nindunan
aspaldi bezala
zein eder hagoen
nire ametsean
gauez
turutak entzuten ditun
haizea itsasoaren gainean
eta hala ere hura
ere isiltasuna dun
begiradan horrela
maite haut
nik gogoz lan egiten dinat
zenbakiak egin
fitxak

ergelekin eztabaidatu
jostatu eta biraoka hasi
emadan eskua
orain
badakin
maite haut
batzuetan Jainkoagan pentsatzen dinat
tira ez hainbestetan
ez zaidan haren denbora
lapurtzea gustatzen
eta gainera urrun zagon
hi neure ondoan hago
oraintxe bertan triste nagon
triste nagon eta maite haut
orduak igaroko ditun
kalea ibai baten antzera
zuhaitzak lagun
zerua
lagunak
eta hau zortea
maite haut
aspaldi umea nindunan
aspaldi eta zer axola zion
zoria xaloa zunan
hire begietan sartzea bezalakoa
utzidan sartzen
maite haut
eskerrak maite haudan

Ez dakit zuoi inoiz gertatu zaizuen
baina baliteke bat-batean batek nabaritzea
benetan zerbait atsekabezkoagoa dela
tantalo eta zorizko halako amodioetako bat
Jainkoak, jeloskor, onartzen ez duena.

Ohar zaitezte mutilak errua leporatzen diola samurki
eta neska zuhaitz azalaren kontra jartzen dela
ohar zaitezte mutilak oroitzapenak dakartzala
eta neska misteriotsuki atsekabetzen dela.

Nago mutila esaten ari dela
Jardin Botanikoan batzuetan esan ohi dena

heuk esan dun
gure maitasuna
betidanik izan dun ume hil bat
bakarrik aldizka ematen zinan
bizirik iraungo zuela
irabazi egingo zigula
baina biok izan gaitun hain indartsuak
ezen odol barik utzi baitugu
etorkizun barik
zeru barik
ume hil bat
hori baino ez
zoragarria eta kondenatua
agian izango liken
hirea bezalako irribarrea
gozoa eta sakona
agian izango liken arima tristea
nirea bezalakoa
deus gutxi
agian ikasiko liken denborarekin
zabaltzen
mundua erabiltzen
baina horrela datozen umeek
maitasunak hilik
beldurrak hilik
hain bihotz handia diten
ezen jakin barik hondatzen diren
heuk esan dun
gure maitasuna
betidanik izan dun ume hil bat
eta zer egia gogorra eta itzalgabea
zer egia erraza eta zer pena
nik pentsatzen ninan ume bat zela
eta ume hil bat baino ez zunan
orain zer geratzen dun
bakarrik geratzen dun

fedea neurtzea eta gogoratzea
zer izan gintezkeen
harentzat
ezin izan baita gurea
zer gehiago
agian heltzen denean
apirilaren hogeita hiru bat eta amildegia
hagoen lekuan hagoela
eramazkiok loreak
neu ere hirekin joango naun eta

Ez dakit zuoi inoiz gertatu zaizuen
baina Jardin Botanikoa parke lokartu bat da
zeina bakarrik esnatzen den euriarekin.
Orain azken hodeiak geratzea erabaki du
eta bustitzen ari gaitu eskale alaiak bezala.

Sekretua da kontuz ibiltzea arineketan
kakalardorik ez hiltzeko
eta etsian igeri egiten ahalegintzen diren
onddoak ez zapaltzeko.

Zuhurtasun barik itzuli egin naiz eta hantxe diraute
bi haiek haritzaren ezker aldean…
betiko eta euripean ostenduta
batek daki zer isiluneak esanez elkarri.

Ez dakit zuoi inoiz gertatu zaizuen
baina euria Botanikoan jausten denean
hemen mamuak baino ez dira geratzen.

Zuek alde egin dezakezue
ni hemen geratuko naiz.

Zuhaitzetik zuhaitzera

Zuhaitzak solidarioak
ote dira?

demagun campos eliseoseko gaztainondoa
entre rioseko quebrachoarekin
edo jaengo olibondoak
tacuaremboko sahatsekin?

westfaliako arteak gaztigatuko ote dio
tiroleko alertze argalari
bere tremendina egokiago erabil dezala?

eta parako kautxoak
edo kwanza ibaiertzeko baobabak
eragina ote dute friskon, kalifornian,
kulunkatzen den mission doloreseko
nekosta haren larrimin berdean?

bere ihintzezko panpan sentituko ote da onbua
antilletako ceibaren anaiatzakoa ia?

parke honetakoek edo zuhaizti hartakoek
azalduko ote diote elkarri adaburuz adaburu
behinola galiarrentzat sakratua zen mihura
orain parasito bat baino ez dela
geruza hurrupari hutsa?

ba ote dakite libanoko zedroek
eta korintoko kaobek
euren arerio errukigabeak
ez direla camagueyko palmondoa
ez tasmaniako eukaliptoa
baizik eta egurgile nekaezinaren aizkora
zur enpresa handien zerra
oinaztarria gauean zartailua irudi?

Banoa sugandilarekin

Banoa sugandilarekin
abiada bizian
ziegak ibiltzera
non raul
hector
jose Luis
jaime
ester

gerardo
zapala
rita
maurizio
flavia
zaharra
guztiongatik nekepean diren
eta eusten ari diren

banoa sugandilarekin
herri-maitez
abiada bizian
batean-bestean
burdinen artean
orbainen ondoan
edo koilara gainean
begirune apurrak uztera
konfiantzazko isiluneak
eta eskerrona bizi direlako

Utopiak

Nola sinetsiko dut / esan zuen urliak
mundua utopiarik gabe geratu dela?

nola sinetsiko dut
esperantza ahanztura dela
edo plazera tristura

nola sinetsiko dut / esan zuen urliak
unibertsoa hondamena dela
hala bada ere
edo heriotza isiltasuna dela
hala bada ere

nola sinetsiko dut
zerumuga muga dela
itsasoa inor ez dela
gaua ezer ez dela

nola sinetsiko dut / esan zuen urliak
zure gorputza / berendia
ez dela ukitzen dudana baino zerbait gehiago
edo zure maitasuna
zuzentzen didazun urrutiko maitasun hori
ez dela zure begien biluzia
zure eskuen geldia

nola sinetsiko dut / berendia australa
so egiten laztantzen edo
barneratzen dudana baino ez zarela

nola sinetsiko dut / esan zuen urliak
utopiarik ez dela
izan ere / berendia eztia
ausarta / betierekoa
izan ere / zeu zara nire utopia

Umeak ginenean

Umeak ginenean
zaharrek hogeita hamar urte edo zituzten
putzu bat ozeanoa zen
heriotza argi eta garbirik
ez zegoen

koxkortutakoan
zaharrak berrogei urtekoak ziren
urmael bat ozeanoa zen
eta heriotza
berba bat baino ez

ezkondu ginela
zaharrak berrogeita hamarrera
helduak ziren
aintzira bat ozeanoa zen
heriotza
besteen heriotza zen

orain adineko
egia igarri dugu
ozeanoa ozeanoa da azkenean
baina heriotza,
geurea izaten hasi da.

SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO

Arnaut Oihenarten ipuin beroa

Baliteke Arnaut Oihenart izatea ezagutzen dugun *lehen* euskal poeta landua (Etxepareren eta Juan Perez de Laçarragaren baimenaz?). Lehentasun hori, nabarmenagoa da, Orixeren ustez, ez noizko, baizik nolako bertsoak idatzi zituen kontuan hartzen badugu: "*Etxepare baino landuagoa, zailuagoa, arinagoa*…, ohartzen digu orexarrak, *Gaur den egunean ere lanik aski Oihenarten neurtitzak baino legunagorik, landuagorik, jasoagorik egiten*"[1].

Oihenarten berezitasunen artean, "*letra-gizona, eskolatua, ikasia*" izana azpimarratu zigun Mitxelenak, baita 'iainkoazko' bertso gutxi idatzi izana ere. Ez horren gutxi omen: "Hamarkuna edo Jainkoaren hamar manuak", "Elizaren manuak", "Eguberri-koplak", "Simeonen kanta", "Vexila regis".

Hala eta guztiz, gaurko artikulu honetan nabarmendu nahi dudana da orain arte inoiz/inork azpimarratu ez den/duen Oihenarten poema baten erotismoaren *tonu beroa*. "Laur karbarien eresi"az ari naiz (Oihenartek asmatua ala herri-istorio batetik hartu eta euskaratua?), zeinari buruz Patxi Altunak eta Jose Antonio Mujikak "*Oihenarteren neurtitzik famatuenetakoa*" dela baieztatzen diguten. Azpimarragarria da Oihenarten adinkide estua izan zen Diego Velazquezek ere, urte bertsuetan, *Las Hilanderas* (bost kasu honetan) entzute handiko koadroa margotu zuela.

Espero dezakegunez, poemaren 'berotasuna' ez da ageri-agerikoa, zeharkako edo ezkutukoa baizik. Ezin genuen besterik espero Arnaut gaztearengandik, zeina, Nafarroako Parlamentuko eta hiriko zinegotzi izateaz gain, Joana d'Erdoy-rekin ezkonduz geroztik, ordura arte kapare hutsa izana zen hura (hidalgoa, espainiar jargoian) Biarnoko handizki bihurtu zen. Kargu altu eta larregi omen poema 'beroak' ageri-agerian argitaratzeko, Euskal Herriko iparraldean, batik bat, non, Gortearekin hasita, kalbinismoz josita zegoenean, XVII. mendean.

"Laur karbarien eresia"ren berotasuna baliteke 1657ko Parisko argitalpenean poema hau agertu ez izanaren arrazoia. Agertu, lehenengoz, "*Baionako liburutegikoan* agertu zen… *Francisque-Michelen argitalpenean argitara eman direnak*". Lotsagatik edo, XVII. mendean Oihenartek argitaratu ez zuena Francisque Michelek F.C.S anaia salletarrak argitaratu zuen… noiz eta XIX. mendean!

"Laur karbarien eresia"ren ageriko istorioa da xumea bezain polita (horrelaxe, Mitxelenak). Gauez garban diharduten lau andre egarriz daude, inork ere urrikari ez dituelarik. Hezegarri baten bila abiatzen dira andre bi (hirugarrena ere gerotxoago) eta aurkitu egiten dute, non eta pikondo batean. Laugarrena, bestalde, inguruko etxe batera doa, non anderauren gisako 'efebo' bat azaltzen zaion, zei-

nek egarria kentzen dion neskari. Bukaeran elkarri kontatzen dizkiote bizi izandako gertakizunak, eta mutil gaztearekin batera, ardo ona lagun, pikoak jaten dituzte ospakizun alaitsu batean… Eta horrela bazan edo ez bazan, sartu dadila kalabazan.

Nire iritziz, haatik, "Laur karbarien eresia"ren testuan, gutxika haztatuz gero, giro beroko istorio erotiko bat topatu dezakegu. Azpijoko hori ohikoa izaten zen errenazimenduko kontakizunetan, Giovanni Boccaccioren *Decameron*en, kasu, edota, gure artean, Angulemako Margarita Nafarroako erreginaren *Heptameron*en ere bai.

Arraro samarra da gizonik gabeko emakumeek "egarria" kentzeko ur bila etxetik irten beharra, nora jakin ezean gainera, eta noiz eta gauaz. Arraroagoa emakumeek iturria non dagoen ez jakitea eta "*baratzez baratze, xori ihizlariak bezala*" ibili beharra. Are arraroagoa ere egarria kentzeko pikondo batez baliatzea (pikondoa hezegarri?) eta nola eta "*zauzko belhaunak gurturik… pot eta besarkaz*":

Han pikotze bat baturik
Frutaz oro kargaturik,
"pot eta besarkaz lotu (zitzaizkion andre biak)
zauzko belhaunak gurturik".

O zuhatz orsto-zabala!
(dioitela) luzez izala
horl'ukensu, horl'ekoizle
orain izana bezala.

Pikondoa guztiz arbola erotikoa da kultura gehienetan, greziar mitologian hasita, zeinean pikondoa baita Dionisios orgien Jainkoa den sinbolo; baita Biblian ere, non bekatu-abagune gisa agertzen zaigun, *Hasiera* liburuaren 3. ataleko 7. txatalean Askoren ustez (gure Ohienart barru) sagarrondoa ez, pikondoa izan zen Paradisuko lehen bekatuaren abiapuntua, eta margolari ez gutxirentzat pikondo-ostoak dira gizonen zein emakumeen sexua estaltzeko errekurtsorik egokiena[2].

Zuhatzetan hi lehena
aiz, hoben' et' ederrena
dohatsu hir' orsto-adarrak
dohatsu hir' ekoizpena!

Etzen deitatzekoa
noizten fruku bizizkoa
Eb'amasok jan zezana,
Bana bai, o hi!, pikoa!

zeren hararik alhatu
zelakoz, zen herioztatu
Eba, baita haren leinu
oro min beraz kozatu.

Horrez gain, arbolak sexu-hobenaren babeslekutzat azaltzen zaizkigu Bibliako *Daniel*en liburuan ere, Susana kastoaren istorioan.

Ipuinak ipuin eta metaforak metafora, hiru garbariek pikondoan aurkitu zuten hilgarria izana zuten egarriaren ('amorio'aren, amorio lesbikoaren?) asegarria:

Aldiz, pikoa, higanik,
hil hurrenean izanik
zitikeguk guk biziak
osagarri hik emanik

Ipuina, haatik, bigarren zatian, hots 14. ahapalditik aurrera, makurtzen da nabarmenago irakurketa erotikora. Etxean bakarrik geratutako laugarren garbaria "*auzora* (auzokoarenera, Altuna eta Mujikaren arabera) *laster zegien*", non eta "*morroin bat han-berekorik / ager zekion, bigitartez anderauren gisakorik*", zeinari emakumeak "*aber zezon bere pena, / bai et' eska hur edo arno / apur baten ahamena*". Morroinak "*barnera sar erazirik / eznez erregala zezan / bere zurati eraitsirik*" ("*le obsequió con leche / sacada de su propio cántaro*" itzultzen dute Patxi Altunak eta Jose Antonio Mujikak). Andrea, haatik, nahiko ase ez omen eta etxetik karbategira darama morroina:

Hanti-landan er'urzeki
zezan gogo handireki
karbategira, bait'egin
karb'aldi bat han hareki.



Karbaldiari buruz interpretazio bikoitzaz zer uler dezakegun olerkariak garbi uzten digu:

Gero bertzen urrundanik
jin-herotsa hautemanik,
berhez ziten, brist elgarri
Pot eta besark'emanik.

Nahikoa ez balitzaie bezala, olerkariak klimaxera daramatza ipuinaren pertsonaien arteko tirabirak. Etxean birbildurik, garbariak eztabaidetan hasten dira, are eta "*hizkatzetik eskukara jin zaizkien*" ere, eta, aitzakia horretaz, morroina gordailutik irten eta beitara joan zitzaien, eta "*igor zezan arno bilha / oikoekin ezkonzteko*"…azken festan.

Noizbait bakeak eginik
Arno'ere orduko jinik
Uxtia zedin pikekin
Garhaitu gab'uztzikinik.

Nola sailkatuko dugu Oihenarten "Laur karbarien eresia": adingabekoentzako mailan ala adin nagusikoentzakoan (*con reparos*, gainera)?

OHARRAK

[1] ORMAETXEA, N., *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra*, Euskal-Esnalea, XVII (1927), 210-211. or.

[2] Pikondoa izan zen Miguel Hernéndez espainiar poetarentzat poema erotikoetan ohiko motiboa. "Oda a la higuera!" kasuan: "Abiertos, dulces sexos femeninos, o negros, o verdales: mínimas botas de morados vinos, cerrados genitales… ¡Oh Meca de lujurias y avisperos, / quid de las hinchazones! / ¡Oh desembocadura de los eros; higuera de pasiones, crotales pares y pecados nones!.... ¡aquí vuelve a empezar, eva, la vida".

Lontzo Zugazaga. Iturrikori *Jesu Kristoren Ebanjelioa* liburuaren inguruan



Zezeilean argitaratu genduan gure eleizbarrutian *Jesu Kristoren Ebanjelioa* liburua (Bilboko Gotzaindegia, 2015). Juan Luis Goikoetxea Arrietak eta biok burutu dogu lana. Eta gero, niretzako ezustean, artikulu bat agertu da *Idatz eta Mintz* aldizkarian, 58. zenbakian *"Jesu Kristoren Ebanjelioa. Testamentu Barriaren itzulpen barria bizkai euskeraz"*. Erruki gabe, zorrotz eta gogor kritikatzen dau gure lana *Iturriko* ezizenaz sinatzen dauan batek.

Benetako izenik gabe argitaratzen zan artikuluari erantzunik ez emotea erabagi neban lehenengotan, eta denpora alperrik galdu barik, zintzo-zintzo geure itzulpen lanetan jarraitzea.

Gerora, ostera, artikulua astiro irakurteko aukera izan dodanean, erantzun beharra sentidu dot, geure buruaren eta geure lanaren alde urten beharra, asaskatu beharra, Derioko Ikastaroetan eta aldizkari horren inguruan urteetan bizi izandako lan eta bizipenek jartzen eustien galgea askatuz. Eta bakez eta soseguz idazteari ekin deutsat, gauza batzuk argitze aldera.

Iturrikok [I.] *Jesu Kristoren Ebanjelioa. Testamentu Barriaren itzulpen barria bizkai euskeraz.*

Lontzo Zugazagak [L.Z.] *Jesu Kristoren Ebanjelioa* liburuak gotzaindegian jasotako eskariari "Ebanjelioak behar doguz bizkaiera gaurkotuan" erantzuten deutso. Zuk ipini dozun azpititulua ez da zuzena. Izan be, liburuan Jesu Kristoren Ebanjelioa eskeintzen da, beste barik, eta bertan Testamentu Barriko hogetazazpi liburuetatik lau bakarrik agertzen doguz, eurek osotzen dabelako Jesu Kristoren Ebanjelioa.

[I.] *"Bizkaiera gaurkotua" horregaz gaur euskeraz darabilgun grafia estandarra eta bizkaiera idatziaren morfologia esan gura dala pentsau lei.*

[L.Z.] Eskaera egin eben abade eta laikoek grafia gaurkotua zaintzea gura eben. Eurak ez ziran sartzen morfologia eta holako kontuetan.

[I.] *Bertsino honen idazkera ikusita, grafia gaurkotua zaindu da, bai. Bizkaieraren morfologiari eta lexikoari jagokenez, ostera, itzultzaileek euren kabuzkoa erabili gurago izan dabe; ez behintzat, gaur egun bizkaiera modernoan finkatu dan eredua.*

[L.Z.] Morfologia eta lexikoari dagokionean, esanda dago hitzaurrean gure aukera. Eta azken esaldian *"bizkaiera modernoan finkatu dan eredua"* aitatzen dozu. Gehiegitxu esatea ez ete da hori? Nire eretxia jakin gura bazendu, nik baietz erantzungo neuskizu.

[I.] *Bertsino honek aurretiko hurrena, Elizbarruti-arteko Liturgi-euskeratzaile Taldearen 'Erromako Meza Liburua. Irakurgaiak' (ML-I) dalakoan eukan. Euskal eleizbarruti guztien artean ondutako euskerazko testu bakarra (1978) eta haren gaineko bizkaierazko bertsinoa (1988).*

[L.Z.] Begira! Meza Liburua gure artean liburu bik osotzen dabe: Altarako Liburua eta *Irakurgaiak* liburua.

Vatikanoko II. Kontzilioaren erabagiz barriztatua izan zan *Missale romanum*. Eta hori gure kristau-herriari eskeini asmoz, egia da euskal eleizbarruti guztien arteko ordezkariek ondu ebena Mezaren Egunerokoa eta Altarako Liburua, eta baita Irakurgaiena be. Gipuzkera osotua deitu eitekion testu barri bakar horri. Eta gero, sarri berandu, egiten ziran eleizbarruti desbardinetarako bertsinoak. Bizkaierazkoa, adibidez, *Altarako Liburua* (1984) eta *Irakurgaiak Liburua* (1988), oinarrizkoa aspalditxo (1978an) argitaratuta egon arren.

Beste arlo askotan sartuta egozan abade batzuk egin behar izan eben bertsinoa, astiuneetaz baliatuz, eleizbarrutiak, gurean Bilbokoak, argitalpen ofiziala egin arte. Borondate hutsezko lanak sarri kalte hori dakar. Besterik gertatuko litzatekean, liturgiaren erreformaren garrantziaz jabetuz eta hori ahalik lasterren kristau-alkarteei emon guraz, opzino sendoago eta eraginkorragoak egin izan balira. Baina, erakundeetan, baita eleizan be, hizkuntza txikia izateak kaltea dakar, harako Joan Mari Lekuonak esan euskunaren haritik: "herri txiki izanak kalte hau dakar".

[I.] *Liturgiako liburu "ofizialen" eredutik urrats bat aurrerago emona jokabide zuhurra izan da, gaur egungo gizarteari begira. Gure eleizeak bere eleiz liburuetan lehenago emon baleu be, eskertuko zala pentsetan dot.*

[L.Z.] Neu be eretxi berekoa naz, aurretiaz be adierazota daukadanez, eta horrek bultzatu nau lan hau egitera. Dana dala, eskertzen dot zure onarpena.

Liburuaren kanpo ezaugarriak

[I.] *Baina kanpo ezaugarriok albora itxita, argitaraldiak baditu bestelako muga batzuk, ez EaB-k ez EBb-k ez dituenak. Biblia, eta Testamentu Barria bardin, liburuka, kapituluka eta bertsikuloka antolatua dago. Halan kontsultatu eta halan zitatu ohi da. Horregaitik batez be, bertsino ia guztiek daukie gaur egun testuko orri guztietan eta bakotxaren buruan zein libururi dagokion, zein kapituluri eta kapitulu bakotxaren zein bertsikulu hartzen dituan orrialde bakotxak. Ebanjelioaren kasuan, MT (Mateo), Mk (Markos), Lk (Lukas) edo Jn (Joan). Adibidez Jn 3,27-36. JKE honetan ez dago halakorik.*

[L.Z.] Jesu Kristoren Ebanjelioa bizkaieratzen hasi ginanean ez, baina gaur bai esan geinke gure lana amaitu gabe dagoala, Testamentu (Itun) Barria osorik bizkaieratzea erabagi dogulako.

Egia da, bai, zuk autortzen dozunez, ardura handiagoa hartu deutsagula, zeinen ebanjelioa dan erakusteari baino, guztia *Ebanjelioa* dalako mezuari.

Halan be, gusturago gengokez zehatz jarri izan balitz testuko orrialde guztietan eta bakotxaren buruan zein ebanjelariren orria dan, eta zein kapitulu eta zein bertsikulo hartzen dituan orrialde horrek. Argitaratze bidean egindako akatsa izan da; Testamentu Barria osorik argitaratzean zuzenduko dogu akats edo zuk aitatzen dozun *muga* hori.

[I.] *Oin-oharrik be ez daroa bertsino honek. Kerexetarenak, 'Biblia de Jerusalem' gaztelaniazkoaren oharrak euskeratuta ekarzan, eta 'Elizen arteko Biblia' (EaB) be oharrez ondo hornidua etorren; ez, ostera, honen aurretikoa dan 'Itun Berria' (IB)/1980. Olariagaren 'Itun Berria'-k (1978) baekarzan, ostera.*

[L.Z.] Liturgiarako egina izan da itzulpen honen iturri dan testua. Eta liturgiarako testuek ez dabe sekula oin-oharrik eroaten. Non eta zertarako erabiliko dan testua jakin ezkero, ez dago argitu beharrik zergaitik ez daroan oin-oharrik. Meza Santurako irakurgaien liburuek eta Sakramentuen Ospakizunetarako liburuek ez daroe sekula oin-oharrik, nahiz eta Bibliako testu ugariz horniduta egon. Liturgian erabili ohi doguzan liburuek ez dabe sekula eroaten benetako sarrerarik ez azpisarrerarik be, eta itzulpen hau liturgian irakurri eta aldarrikatzeko egina izan da, bai iturri testuan (Erroman dagoanean) eta baita gure bertsinoan be.

Bertsinoaren iturriak

Oker-ulertu larrian jausi da *Iturriko* bertsinoaren iturriak aitatzen dituanean, edo holan emoten dau aditzera. Iturriak egin deutso ihes, hain zuzen. Eta horrek baldintzatu egiten ditu gero irmotasunez emoten dituan eretxi eta epai batzuk.

[I.] *Hitzaurrean autortzen dabe itzultzaileek, EaB eta ML-I izan dirala, testua atontzeko orduan, eredutzat hautu dituen iturriko testuak, jatorrizko grekozkoa be aurrean dabela.[…]*

Aitaturiko iturri testu biok eta grekozko osagarria erabili izanak bertsino honi, mezuaren zehaztasunaren aldetik, berme zindoa emoten deutso. EaB-k jatorrizko testuen itzulpen zuzenak izateak eskeintzen daben ziurtasunagaitik. Meza Liburua *eta horretako* Irakurgaiak *be bai, estilo jatorraren aldetik. […]*

Iturri-testu bion arteko alderik handiena hizkeran dago, bata batuaz eta bestea bizkaieraz idatziak egotean. […]

Itzultzaileek iturri-testu biak aurrean dirala ondu dabe eurena, batean batari men eginez, bestean besteari edota eurek beregango bidea hartuz.

[L.Z.] Begira! Hitzaurrea zehatz irakurri ezkero eta eleizbarrutian martian argitaratu izan ziran argibideak kontuan izan ezkero, informazinoa zuhur bilatu ezkero edo Gotzaindegiko Euskera Zerbitzura jo ezkero, –ez gagoz hain urrun eta ez gara hain desezagunak be–, erraz ekidingo eban *Iturrikok* oker-ulertua.

Gure bertsinoa behar dan moduan ulertzeko giltza eta kakoa hementxe dagoan ezkero, arlo hau ondo argitzen ahaleginduko naz, itzulpenaren historia be kontuan hartuz.

1994an *Elizen arteko Biblia* (EaB) argitaratu genduan, euskara batuan. Urrats ikaragarria izan zan, bai itzulpen zientifikoa eta jatorrizko testuen itzulpen zuzena egin zalako, eta baita euskara batuaz egin izanak aurrerakadaz eta gaurkotasunez hornitzen ebalako.

Lau urte geroago, itzultzaileon ohiko batzar baten kezka bat agertu zan: "Zer egin Biblia eder hau gizarteratzeko?"

Hiru batzar edo egin genduzan Donostiako Idatz liburu-dendako gela baten. Bibliaren erabilera bizkortu eta bultzatzea zan gure asmoa eta helburua. Hirugarren batzarrean, 1998-11-03koan, Euxtasio Etxezarretak planteau eban: "eta eskuko meza-liburua prestatu eta kaleratuko bagenu?" Ahobatezkoa eta pozezkoa izan zan gure baietza. Danok gengozan prest lanari ekiteko; eta eskuko meza-liburua egindakoan, aurretiko *Altarako Liburua* eta *Irakurgaiak* liburua eguneratuko genduzan, eskuko *Meza-Libururako* egindako lanaz baliatuz. *Meza Liburu* barria prestatzerakoan EaBren itzulpenaren balioak liturgia mundura eroatea gura genduan itzultzaileok.

Dionisio Amundaraini egingo deutsat lekua: "Zertan da Meza Liburu Berria", Lazkao 2012-08-28.

"Denok bat etorri gintuan lanari ekiteko. Eta hala hasi gintuan. 1999-02-18an hasirik, urrats importante eta lasterrak eman genizkian liburua prestatzen. Neurri handiagoan edo txikiagoan, lagunok hartu genian parte, hasiera hartan: Amundarain Dionisio (Gipuzkoa), Andiazabal Pierre (Lapurdi), Apezetxea Joan (Nafarroa) Arrieta Jesus Mari (Gipuzkoa), Elejalde Jesus Mari (Aramaio), Etxenagusia Karmelo (Bilboko gotzain-laguna), Etxezarreta Euxtasio (Gipuzkoa), Irizar Ramon (Gipuzkoa), Lekuona Joan Mari (Gipuzkoa), Rementeria Jose Mari (Bizkaia), Zugazaga Lorentzo (Bizkaia). Halere, esan dezadan lan funtsa sei lagunek burutu dutela, besteena gutxietsi gabe (batez ere, Elejalde eta Apezetxea): Amundarain, Arrieta, Etxezarreta, Irizar, Rementeria eta Zugazaga. Gainera, Ramon Irizarrek testu biblikoak moldatzean bakarrik jardun zian, gogotik eta bizkor jardun ere". […]

"Taldeak bukatutzat eman zian bere lana 2009ko azaroaren 23an. Euxtasioren esku gelditu huen liburuari forma eman eta gaineratikoa".

Egindako lana osotzeko izan doguz ostean batzar banakaren batzuk, baina borondatezko eta astiuneetako lanek atzerapen eta luzapen amaibakoak izaten dabez.

Gerora, tamalez, astiro eta nekez joan dira gauzak, eta Erromako baimenaren begira aurkitzen gara 2015ean.

Hauxe da guk aitatzen dogun *Meza Liburua* eta horixe izan da gure iturri-testua, guk begirune osoz bizkaieratu doguna.

Guk, EaB kontuan izanda, itzulpen barria egin dogu, baliokidetasun dinamikoa aintzat hartuz, eta liturgian herriari Jainkoaren Berbea aldarrikatzeko zuzeneko komunikazino aldeari indarra emonez, irakurteko baino gehiago entzuteko izan dadin egokitzen ahaleginduz. Hauxe da guk aitatzen dogun *Meza Liburu* barria, Madrileko Gotzainen Konferentziaren onespena hartu ondoren Erroman aurkitzen dana, baimen ofizialaren zain. Hori da gure iturri-testu nagusia.

Zuk jakingo dozunez, liturgian ez dira azaltzen Ebanjelioen atal guztiak. Ba, Erroman dagoan *Meza Liburu* barri horretatik Liturgian agertzen diran ebanjelio atal guztiak jaso ditugu, ebanjelioetako ehuneko larogeta hamarra inguru eskuratuz, eta gainontzekoa, Mezako irakurgaietan agertzen ez dana, ehuneko hamarra edo gitxiago beharbada, EaBtik hartu dogu, horretara lau ebanjelioen oinarrizko testu osoa lortzeko. Eta horixe izan da gure iturri-testua eta ez zuk behin eta barriro aitatzen dozun 80ko hamarkadakoa. Halandaze, iturria, oso osorik, *batuaz* idatzia jaso dogu. *Zuk behin eta barriz iturri lez aitatzen dozun bizkaierarik ez da hemen agertzen*. Eta guk horreri jarraitu deutsagu eta hori bizkaieratzen ahalegindu gara, horixe izango dalako aurrerantzean liturgian erabiliko doguna.

Gauzak holan izanda, non gelditzen da zure baieztapen seguruen balioa eta sinesgarritasuna?

Dana dala, guk ez deutsagu ezelan be *"batean batari eta bestean besteari men egin";* aurrean geunkan testu bakarrari jarraitu deutsagu ahalik eta gertuenetik eta zehatzen.

Izan be, holako itzulpena ezin da egin, ez da egin behar, arinkeriaz eta ganora barik, geure gulerietara moldatuz.

Aurretiko itzulpenetako filosofia izan da nagusi oraingoan be: oinarrizkoari zehatz jarraitu, begirunez, iturritik ahalik gitxien aldenduz.

Gure Karmelo Etxenagusiaren berbak ekarriko dodaz gogora begirunearena argitzeko [ikusi zeinkenez, beraren idazkera errespetatzen dot]: "Eleiza Amaren eta zentzun onaren legeak eskatzen dabenez, aal danik eta zeatzen jarraitu jako aurretik argitaratua egoan liburuari. Ez da, ba, itzulpen barria, leengoa bera zerbait aldatu eta egokitzea baino, gure Bizkaiko fededunak albait ondoen eta errazen ulertu dagien" (*Irakurgaiak* liburuaren aurkezpenean, Larran, 1989-04-19an).

Eta 1988an argitaraturiko *Irakurgaiak* liburuan Karmelo Etxenagusiak egindako lana aitatzen dozun ezkero *("Berak autorturik dakigu, honen bizkaierazko bertsinoa, Karmelo Etxenagusia gotzain idazlearen galbahetik iragazia da hitzez hitz. Berberak jo ei eban makinaz azken bertsinoa, inprimategira aurretik, letraz letra"*. Honetaz be badaukat esatekorik:

Eleizbarruti-arteko ordezkaritzarekin egin zan 1978an argitaratu zan *Irakurgaiak* oinarrizko liburua. Eta gure *Irakurgaiak* (1988) liburua dala-ta, gogoratu daiguzan Karmeloren berbak: "Beste liturgi itzulpen guztiak lez, au be elizbarruti arteko talde batek itzuli eban euskerara. Talde orretan euskal elizbarruti guztietako ordezkariak egin dabe lan, Manuel Lekuona buru zala. Taldeak egindako irakurgaietatik zatirik beiñena (domeka eta jaiegunetakoa) bizkaieraz argitaratuta euki dogu, urtetik ona (sic), [berak ez dau urterik seinalatzen, baina 1972, 73 eta 74an argitaratu ziran] iru liburutan: A, B eta C (au, zatika; besteak, osorik, urte bakotxekoa bere liburuan). Donostia, Iruñe ta Gasteizko elizbarrutietarako liburu lodikote bakar baten argitaratu ziran irakurgaiak: ez domeka eta jaiegunetakoak, Eukaristiaren barruan edozein elizkizunetan erabili behar diran guzti-guztiak baiño. Bizkaitarrok orain argitaratu dogun liburua orixe berori da, gure elizbarrutirako bear danez egokituta" (Larran, *Irakurgaiak* liburuaren aurkezpenean).

D. Karmelok eleizbarrutian eukazan ardura eta karguakaitik ez eukan asti modurik lan horretarako. Berari lagako deutsat berbea, berak esan deigun garbi nortzuk parte hartu eben, eta nork zer egin eban:

"Nortzuk egin daben. Orain arte erabili doguzan *Irakurgaiak* (Domeketakoak), Aita Lino Akesolok egokitu zituan Bizkairako, eta badaukez K. Etxenagusiaren eta Pio Zarrabe pasiotarraren ikutu txiki batzuk be. Orain argitaratu dan liburu lodia bizkaieratzeko lagun askoren laguntza eskatu zan: P. Puxana, J.B.Gallastegi, J.F. Garitaonandia, J.F. Zamakona, J.J. Lejarazu izan ziran leenengo lana egin ebenak, bakotxak Bibliako zati batzuk egin zituala. Salmoak, oso-osoan, L. Zugazagak egokitu zituan. Dan-danari batasuna eta azken eskua L. Zugazagak eta K. Etxenagusiak emon deutsoe, eta eurok egindako utsak J.M. Rementeriaren begi zorrotzak zuzendu ditu" (Larran, *Irakurgaiak* liburuaren aurkezpenean).

Nahiz eta berak asti handirik ez euki bere ardura astunak tarteko, gogoan dot horraitino hurrengo hau: San Pauloren kartak bizkaieratzeko J.M. Rementeriagaz eta neugaz hartu ebazan egun batzuk (1985), gure lurraldetik nahiko urrun abade lagun batek itxi euskun bere etxean. Eta egia da, bai, zuk dinozunez, Karmelok jo ebala makinaz azken bertsinoa; neu naz lekuko, neuk esan eta diktau ahala idatzi ebalako. Astero egun oso bat emoten genduan biok horretan, Begoñako *Refugio* etxean, goiz eta arratsalde. Halan be, aurretiaz eginda egoan lanari guk ez geuntsan beste munduko aldaketarik egiten.

Estilo eta sintaxi kontuak

[I.]. *Hitzak eta esaldiak ordenetako moduak be estilo joera bat erakusten dau. Eta ordena kontuan Altuberen zorroztasunetik hurrago dakusku bertsino hau, tradizinoaren malgutasunetik baino"*.

[L.Z.].- Esan egitea be! Gorago adierazo deutsudanez, geuk aurretiaz eleizbarruti-artean eginda geunkan iturri-testuari jarraitu deutsagu, ahalik gertuenetik, eta ni zurtz eginda gelditzen naz hemen Altuberen zorroztasunak eta aitatzen dozuzanean (gure lankide gipuzkoarrek ez dakit zer pentsauko daben, ze ez dot uste Altube eta bere jokerak ezagutu be egiten dabezanik).

[I.]. *Joera sintaktiko bi dira euskeraz. Bata klasikoa […]. Sintaxi klasiko horren aurrez aur, joera modernoa beste hau da […]. Biak, zilegiak eta zuzenak, jakina*.

[…] Bada sintaxi bildua. Baina bada beste ordena bat, klasikoa dana, Añibarrorena, galdegaia aditz ostean dauala, baina ulertzen erosoa […]. Biak dira legezkoak. […]. Ni bigarren bidera obentzen naz gehiago.

[L.Z.].- Biak, zilegi eta zuzenak..,; biak dira legezkoak ziurtatzen dozu. Zeuk gurago zeunkeana azpimarratzen dozu eta zeure hobespena

seinalatzen. Ederto! Bide batez zeure informazino zabala adierazten deuskuzu.

Gure jokabidearen egia besterik da, ostera. Honetan be guk Erromara bialdu dogun testua izan dogu eredu, eta *ez gara ibili geu geutara estilo eta sintaxi barriak asmatzen, zuk aditzera emoten dozunez*.

[I.]. *Erlatibozko mende-perpausak erreferentzia-izenaren aurrean ipintea, euskeran ordena era nagusia izan arren, ez da beti hil edo bizikoa. Lege horregaz zorrotzegi jokatu ezkero, komunikabidea galgatu edo ilundu egin daiteke*.

[L.Z.]. Osoan konforme. Halan be, zuk hemen papereratzen dozuzan esaldietan ez dot ikusten arazo handirik, danak be laburrak diralako. Esaldi luzeagoetan sortzen da arazoa, azkenera arte itxaron beharrak komunikabide zuzena oztopatu eta esaldia iluntzeko arriskuan ipintzen daualako.

Bizkaiera eredua

[I.]. *Ebanjelioen bertsino honek hartu dauen bidea ez da, ez morfologiaz, ez lexikoz, ez osterantzeko hainbat puntutan, ez bizkaierazko tradizinokoa, ez gaur egungo bizkaiera idatzikoa*.

[L.Z.]. Lehengo oker-ulertuaren menpe jarraitzen dozu. Iturri-testuaz argitua eta morfologiaz eta lexikoaz esanda dagoana aintzat hartu beharko zeunke.

Oso ondo deritxot zuk zeure alde egitea, eta *apologia pro vita propia* eginez, beste guztiak be zeure sarera sartu gura izatea. Egia biribila da bizkai euskera arautze aldera urrats garrantzitsuak emon dirana, –jakitun nago–, eta hori Labayru Fundazioaren gidaritzapean eta gure administrazinoaren babes eta autormen osoaz egin izan dana. Ederto! *Baina hortik jarrera itxiaz bizkaiera estandarra, bakarra ezarri gura izatera badago aldetxua*. Eta hori non eta euskalkian, bizkaieran, noiz eta gaur, 2015ean, aspalditik (1982tik, hogeta hamahiru urte) Euskadi Irratia Bizkaia osoan zehar etxeko eginda dagoanean eta ETB (1982tik, hogeta hamahiru urte) gure uri, herri eta baserri guztietan sakon eta zabal entzun eta ikusten danean. Gure morfologiari eta gure lexikoari ez ete deutso ezelango eraginik ekarri behar olatu indartsu horrek? Ala ez dogu gura ezelango zirkinik egin deigun? Erabat ateak eta begiak itxi eta entzungor egitea izango ete da egokiena geurea zaintzeko eta babesteko?

Eta bizkaierazko tradizinoa aitatzen dozun ezkero, badot horretaz be argibideren bat eskeini beharrik.

Guk hitzaurrean aitatzen dogun *bizkaierako eliz testuetako tradizioa* behar dan moduan, zehatz eta zuzen ulertu behar da.

Begira! Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa ospatu arte (1962-1965) euskerazko testuek ez euken ezelango ofizialtasunik ez Meza Santuan ez Sakramentuen Ospakizunetako liburuetan. Latina zan liturgian hizkuntza ofiziala, bakarra. Kontzilioak emon eutsen liturgiarako ofizialtasuna beste hizkuntza guztiei (Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa, "Sacrosanctum Concilium" Konstituzinoa (1963-12-4).

Gauza bat da zuk dinozun bizkaieraren tradizino idatzia eta beste gauza bat da liturgian erabilitako eleiz testuetako tradizinoa. Eta hau Kontzilio ostekoa da; laburra, beraz, eta erraz azaltzeko erakoa. Horra gure eleizbarrutian gorpuztu dan tradizinoa. Bilboko Eleizbarrutiak, Kontzilioa amaitu ostean, *ofizial* deklaratu zituan (ad interim) harik eta itzulpen barria argitaratu arte

Aita Santiago Onaindiaren eta Jaime Kerexetaren *Eguneroko Meza,* 1963.

Eleizbarruti-arteko Liturgi-Euskeratzaile Taldeak prestatu eban testua oinarri harturik, *Irakurgai-Liburua I (A), II (B), III (C) (1972-73-74)*. Domeka eta Jaiegunetakoak.

Jaime Kerexetaren *Euskal Biblia*, 1976.

Eta azkenez, testu ofizial barria argitaratu zan, irakurgai guztiakaz, astegunetako zein jaiegunetako danakaz:

Liturgi-Euskeratzaile Talde berberak ondutako oinarrizko testutik (1978an Gipuzkoa, Donostia, Iruñea eta Gasteizko eleizbarrutietarako argitaratuta egoanetik) Bilbon argitaratu genduan *Irakurgaiak* (1988) liburu lodia, Eukaristiaren barruan erabili behar diran irakurgai guztiak, astegunetakoak eta jaiegun eta domeketakoak hartzen dituana, gaur arte indarrean dagoana.

Hauxe da, benetan, gure bizkaierazko eleiz testuetako tradizinoa. Orduan, ez dakit nondik nora eta zer dala-eta joan zaran Añibarro eta enparauengana, hareen sasoian latina baino besterik ezin bazan entzun liturgi-ospakizunetan.

Barriro be errepikatu gura deutsut zein izan dan gure iturri-testua: Erroman, baimen ofizialaren zain aurkitzen dana.

Egia esan, testu horretan esaldi ilun eta korapilatsuak aurkitu doguzanean, astiro jo dogu jatorrizko testura, grekora, eta kontsultau doguz baita Vulgata Barria eta zerrendatu barri dodazan gure tradizinoko testuak, eta baita A. Apaolazarena, M. Etchehandyrena e.a. Esaldi asko izan ez diran arren, ordu asko emon dogu esaldi ilunok bizkaitarrok ulertzeko moduan eskeintzeko.

[I.]. *Itzultzaileek euren kabuzko bide bat hartu dabe: bizkaiera eta batu ereduen artean zibi-zabuan dabilen nahasteko eredu bat; eredu bien nahastura izan gurako bat. Peru Landetakori uragaz eta ardaoagaz jazoten jakon berbera egiten jaku guri be eredu horregaz…*

[L.Z.]. Ez dot uste Peru eta Maisu Juanen alkarrizketako irudia bape egokia danik bizkaiera eta batuaren arteko dana-dalako arazoa argitzeko. Bizkaiera eta batua ez dira berbeta bi. Biak dira euskera; zein da ura eta zein ardaoa? Eta argi dago guk ez deutsaguna ezelan be "batean batari eta bestean besteari men egin"; aurrean geunkan iturri-testu bakarrari jarraitu deutsagu begirune osoz ahalik eta gertuenetik eta zehatzen.

[I.]. *Morfologia puntu batzuekaz iruzkinduko dot dinodana. Funtsezko legea da –a amaierako hitzek –ea bihurtzen dirana mugatzaileaz. […]. Eredu batuaren –a horri eutsi deutse, sartalde tradizino osoko –ea baztertuz.*

[L.Z.]. Lege hori beti eta zorrotz aurrera eroateak, ez ete dau astunegitxu egiten bai diskurtsoa eta baita testua be?

[I.]. *Erakuslea eta mugatzailea sintagma berean agiri diran kasuetan, erakusle bi balira lez tratatu ditue. […]. Bokatibo atributiboa danean be, -ori mugatzaile hurbila dana "hori" erakusle bihurtu dabe*.

[L.Z.]. Zure azalpena aintzat hartuz, zuzenduko dogu gure idazkera, nahiz eta entzulearentzat (liturgiako partaidearentzat) ezertxo be aldatuko ez dan. Eta pluralean, "hareek gizonareek" idatziko zeunke?

[I.]. *Izen bokatiboak mugagabez markatze hori be moda barrikoa da, euskal telesailetan eta entzuten dana, baina ezetariko sustrai bakoa izen neutroakaz.*

[L.Z.]. Oinarrizko testua egin genduanon arteko inortxok ez eban izan ezelango eragozpenik izen bokatiboak mugagabez markatzeko, eta erabili dogun moduan mantentzeko asmoa daukagu. Ez dozuz ikusi *Irakurgaiak* A.B.C. / Kerexeta / *Itun Berria* 1980 / *Irakurgaiak* 1988 / Apaolaza 1994 / *Elizen arteko Biblia* 1994? Egizu, mesedez, ahalegintxu hori.

[I.]. *Soziatibo kasurako –rekin atzizkia bultzatu dau eta –gaz bizkaierarena baztertu. […]. Batzuetan –gaz be irristatu jake horraitino.*

[L.Z.]. Hona hemen bilaketa handiak egiten ibili barik Mateoren araberako Ebanjelioan agertzen diran forma batzuk (beste ebanjelarietan be beste horrenbeste aurkitu ahal izango dituzu).

Neugaz / senideagaz / arerioagaz / beragaz / Jesusegaz / ikasleekaz / predikazinoagaz / beragaz / erreinuagaz / sareagaz / aitagaz / hondarrekaz / morroiekaz / lagunagaz / mahasti-nagusiagaz / honegaz / alargunagaz / alkarregaz / neskatilekaz / nigaz / neugaz / hagaz.

Ez dozu uste *irristada* hutsak izateko askotxo dirana? Zerk eragin ete deutso zure buruari aurrekoa ez ikusteko, eta *–gaz* baztertu egin dogula merketxu esateko?

Ia berrogeta hamar urte joan dira Eleizbarruti-arteko Liturgi-Euskeratzaile Taldean *Mezaren Egunerokoa*, bateratua, osotu zanetik. Harrezkero, asko eta asko dira Bizkaia osoan zehar, milaka egunero edo astero, "Jauna zuekin" entzun eta "Eta zure Espirituarekin" erantzuten ohituta dagozan bizkaitarrak, eta "zurekin eta Espiritu Santuarekin batean" amaitzen diran otoitzei "amen" erantzuten deutsienak. Askok egunero entzuten dabe "Aita Santuarekin, gure Artzainarekin, Eleiz-gizon guztiekin, zure Semearekin, Maria dohatsuarekin, apostolu santuekin, zure adiskide izan diran santuekin, eurekin, Honekin eta Honengan, Espiritu Santuarekin batean". Ez da, ba, ezelan be arrotza eta desezaguna *–rekin* forma gure artean. Eta, nahiz eta Bizkaiko eskualderik gehienetan *–gaz* izan formarik erabiliena, *-rekin* be ez ete da ba geurea beste eskualde batzuetan, eta ez ete da geure bihurtu azken hamarkadetan?

[I.]. *Motibatiboan be –gatik irakurri dogu, bizk. –gaitik ohi dauen lekuan.*

[L.Z]. Txitean-pitean ikusi zeinke –gaItik. Adibidez, 17.orrialdean:

LurragaItik / zeruagaItik / JerusalemengaItik / buruagaItik.

Beste horrenbeste 91. orrialdean, (eta beste askotan):

Egiteagaitik / tenpluagaitik (3tan) / urreagaitik / altareagaitik (3 bider) / opariagaitik / guztiagaitik / Jainkoagaitik / zeruagaitik / tronuagaitik, dagoanagaitik.

Zelan euki leike begi hain zorrotza –gatik bat ikusteko eta jarraian itsu gelditu txitean-pitean ikus leitekezan hainbeste –gaitik ez ikusteko? Ulertezina egiten jat. Izan be, zenbat gura –gaz eta –gaitik ez ikusteko, ebanjelioetan agertzen dan "bihotzeko itsukeria" ete dago tartean? Ez neuke holakorik pentsatu be egin gura.

[I.]. *Gaurdanik ekialdeko egitura da, eta bizkaieraz badauka ordaina: gaurganik (edo gurago bada, gaurgandik).*

[L.Z.]. Gamizen *gaurgandik* esaten da eta holan ikasi neban nik txikitan; halan be, iturrian *gaurdanik* egotean ez dogu zuzendu, ez deuskulako ezelango arazorik sortzen huskeria txiki horrek, ez ulertzeko eta ezta esateko be.

[I.]. *Aditz morfologiara etorrita, zer-nori-nork egituran eutson, deutsozu, deutsodan erakoak darabilz, Kerexetak Azkueri jarraituz darabilen bide beretsutik, tradizinoko eta bizkaiera arautuko eutsan, deutsazu erak bazter lagata. […]. …zertara jo atzera Azkueren gramatika logikazalera?*

[L.Z.]. Bai berba egitean eta baita idazterakoan be, biak erabilten dira eta guk biak onartzen doguz arazo barik. Dana dala, nik, pekatari honek, apal-apal autortu behar deutsut ez dodala sekula irakurri Azkueren "gramatika logikazalea", zuk haren menpeko eta jarraitzaile nazala ziurtatu arren.

[I.]. *Adizki aoristoen zer-nork jokoan be, (ikusi) dagizun, (izan ez) dagidan, emon begio erakoak baino ez ete zan hobe daizun, daidan, beio erakoak erabiltea, askoz zabalago dabilzanak?*

[L.Z.]. Zabalago ibilteak beti holan erabili beharra eskatzen dau ala? Biak ondo badagoz, askatasuna beharko dogu bata nahiz bestea erabilteko. Horrez gain, badago beste arrazoirik –GI– hori ez baztertzeko, liturgian behintzat. Begira! *Mezaren Egunerokoa* egin zanean euskal musikalariei eskatu jaken letra hari doinua jarri egioela. Halan, esate baterako "egin dezagun otoitz" eta "atera gaitzazu, Jauna"ri doinua ipini eutsienean, guk, bizkaitarrok, egokitu egin behar genduan geure letrea, ahal izanik silaba kopuru berbera jagonez. Halandaze, "egin daGigun otoitz" eta "atara gaGizuz, Jauna" idatzi genduzan, bidezkoa zanez. Eta holan jarraitzen dogu.

[I.]. *Ahalerazkoetan (jakin) dagiket oraineko ahalera adizkietara joten dabe, bizkaieraz askoz ezagunagoak diran nei edo neike albora itxita.*

[L.Z.]. Egia da oraineko ahalerak onartzen doguzana eta erabili doguzana: halan be, ez doguz laga besteak alde batera, eta ezin ukatu zeinke hor agertzen dirana. Adibidez:

Jaio leiteke / sartu ete leiteke / gertatu leiteke / ezin leiteke ezer be egin / zelan egin leike / edegi ete leikez / idatzi leitekez / ezin leikie barau egin / ezin leiteke inor sartu / nor salbatu leiteke / ezin leiteke izan / nork itzi leike / nor salbatu leiteke, orduan? / ezin leitekez hil / urten leike ezerk onik.

Guk biak onartzen doguz eta erabilten doguz, zabaltasunez. Ala orainekoak kendu eta ezabatu egin behar ete dira betiko euskal aditzetik eta euskal hizkuntzatik? Ni ez nengoke sekula horren alde. Hasieran *daGiket* eta *leGike* idazten genduan; baina gerora kendu egin deutsiegu *G* ahalerazkoei, *daiket* eta *leike* formak erabiliz.

[I.]. *Aditz trinko batzuk, dino erakoak, ba- aurrizkiaz markatu ditue sistematikoki, galdegai bihurtu gurarik, benetako galdegaia ondoren datorren konpletiboa dan kasuetan be. Halan: eta badinotsuet ez nozuela ikusiko, harik eta hau esango dozuen arte (Mt 23,38).*

[L.Z.]. Nondik nora eta zertarako atara dozu azalpen hori? Nik baieztapena sendotze aldera erabili dot baliabide hori. Izan be, jatorrizko testuan, grekoan, ez da esaten *lego ymin* bakarrik, *lego gar ymin* baino. Eta zuk aitatzen dozun *hor* hitzak ez dau euskeratzen ezelan be jatorrizko testuan agertzen dan *gar. Lego gar ymin* ebanjelioetan sarri agertzen dan *amen, lego ymin* eta *amen, amen lego ymin* espresinoen

bidetik gertu egon leiteke. Eta azken honeek *benetan dinotsuet* eta *bene-benetan dinotsuet* euskeratu doguz.

[I.]. *Aditzizenetan, bizk*. -ten *ebaten diranak* -tzen *bihurtu ditue, batu eredura jo gurean: eregitzen, etortzeko, hiltzen, iragartzen eta ez eregiten, etorteko, hilten, iragarten*.

[L.Z.].Bai, holan jokatu dogu eta aukera hori mantentzea da gure asmoa, eta euskara batuak *-tzen* ebaten dauanean geuk be onartzea. Ez dogu uste horrek aparteko kalterik ekarriko deuskunik geure bizkaiera babesteko.

[I.]. *Aditz konposatuaren bidez aspektu burutua edo ekintza bat amaiturik dagoala adierazoteko, ekialdeko hizkeretan* joana da *esaten dana*, joanda dago *esaten dogu sartaldean. Bertsino honetan, EaB ereduari men eginda seguruen, ekialdekora joten dabe sarri. EaBe: Ikasleak hirira joanak ziren (Jn 4,7-8), JKE: Ikasleak urira joanak ziran. Ez ete zan gozoago bizkaitarren belarrientzat: joanda egozan? Beste adibide bat: Zazpietariko zeinen emazte izango da, ze, danena izana zan (Mt 22,27). Bizkaieradun batek beste era batera adierazoko leuke hori*.

[L.Z.]. Gauza bera ete da beti? Lehenengo adibideari jarraian jarri deutsazu ordaina; bigarrenari, ostera, ez. Ez ete dago aparteko ñabardurarik hainbat esalditan? Eta zer galtzen dau bizkaierak ekialdekoa onartzen badogu?

EaB ereduari men egin deutsagula dinozu. Behin eta barriro argitu dodanez, hemen be ez deutsagu men egin *EaB*ri, geuk eleizbarrutiarteko Liturgi-Euskeratzaile Taldeak eginda geunkan itzulpenari baino.

[I.]. *Egitura zalantzazkoak dira beste honetarikoak be: Babiloniako erbestealdi ostean (Mt 1,12), erbestealdiaren ostean toketan zan, aurretik Babiloniako izenlaguna eukirik*.

[L.Z.]. Zuk zeure artikuluan "estilo jatorraren aldetik" goraipatzen dozun guk larogeiko hamarkadan egindako *Irakurgaiak* liburuan (1988) eta Kerexetarengan "erbestealdi ondoren" agertzen da. Dana dala, hemen be guk, aurretiaz geuk batuz eginda geunkan itzulpen barriari (Erroman dagoanari) jarraitzen deutsagu.

[I.]. *Mende perpausetan azertuz jo dabe kausazkoetan, esaterako*. Ze *kausazko aurre-hitzaz baliatzeaz itu-ituan jo dabela esango neuke. Sarritan darabile eta txito egoki. Kausazko egitura batzuk eta euren esangurak testuan ondoen josteko modua sarritan.[…].- Ez dakit, ostera,* ze *aurre-marka hori koma barruan zergaitik hesitu daben. Aurrean bai, baina atzean ez leuke ezer eroan behar, sarrera emoten deutsan kausazko perpausa ez bada*.

[L.Z.]. Tira! Zeozer ondo egin dogunean sikeran. Ba, ez pentsau erraz hartutako erabagia izan danik. Osoan bidezkotzat jo arren, bagenkian askoren gustokoa ez zana izango, eta kritikak leporatuko genduzala uste genduan. Izan be, "Zoriontasunak" adibidez beste era batera entzuten ohituta dago jente asko, eta urteetan gainera: "Zorionekoak gogoz behartsu diranak: eurena dabe-eta zeruetako Erreinua". "Zorionekoak zuzentasunaren gose-egarri diranak: asetuak izango dira-eta". Halanda ze, bide barri honek aurkariak izango ebazalakoa geunkan. Eskertzen dogu azertuz jo dogula baderitxozu.

Gero, komaren arloak badauka bere azalpen bidea. Izan be, liturgiako gure liburuetan preminazkoa baino hainbat ugariagoa izan ohi da puntuazinoa (ik. Irizar Arabaolaza Ramon, *La traducción del leccionario litúrgico en el contexto de la traducción bíblica general*: "Un elemento menor, pero en absoluto desdeñable, es el cuidado de la puntuación, que tiende a ser más abundante que la estrictamente necesaria; así se ponen de relieve las pausas lógicas del discurso (y de la lectura). Y sobre todo la comprobación en la fase de producción del texto de su adecuación a la lectura-proclamación pública", 28. or.). Era horretan irakurleari sentidua emonez irakurri dagian laguntza eskeini gura deutsagu, eta entzuleak be errazago bereganatu leike, entzun ahala, esaten jakona.

[I.]. *Denporazko mende-perpausetan* –larik *atzizkidun adizkiak agiri dira behin baino sarriago,* –la *atzizkia ohi darabilgun lekuan. Halan: abade-zerbitzua egiten ebilelarik (Lk 1,8). Bizkaieraz, bai tradizinoan, bai berbaz, "ebilela" esango genduke holakoetan*.

[L.Z.]. Bai. Arrazoi osoa daukazu. Halan be, ez dogu uste noizbehinka bizkaieran be onartu ezinekoa danik. Ala ezinbestekotzat jo behar dogu holako huskeria be baztertzea bizkaiera garbi eta kutsadura barik jagoteko? Kantuetan, adibidez, ez deusku arazorik sortzen, bizkaitar hutsek jardun arren: "Iruten ari nuzu… ardura dudalarik, ardura dudalarik". "Maitatua sobera nintzelarik …". "Agur Zuberoa…., sorlekua utzirik gazte nintzalarik". Dana dala, banaka batzutan azaltzen da –larik eta gehiengo ikaragarrian –la, beste barik.

Lexiko eredua

[I.]. *Bizkaierazko bertsinoa izanik, agiri diran hitz edo hitz-aldaera askotan be ezagun dau EaBren testuaganako obendura. Hitz batek bizkaieraz eta batuaz aldaera bereziak dituanean, baturako obentzen da behar baino sarriago*.

[L.Z.]. Oinarrizko aurrean geunkan testua batueraz egotean, baleiteke testu horretara makurtzea, gehiegitxu beharbada. Dana dala, hemen be ez gara makurtu *EaB*ren eredura, geure oinarrizko testura baino.

[I.]. Nazioa *darabile, ez* nazinoa*, bizkaierak erderako* –ión *guztiak* –ino *egiten dituanean*.

[L.Z.]. Ihes egin deusku. Ikusi zeinkenez, *nazino* be badarabilgu eta gehiagotan gainera (ik Lk 21,10: nazinoa nazinoaren aurka). Eta neke handi barik ikusi zeinkez: kontribuzino, predikazino, madarikazino, kondenazino, burutazino.

Ez da bidezko, edo nik holan deritxot behintzat, *nazio* behin ikusita beste barik, hori opzino eta lege bihurtu dogula esatea.

[I.]. *Eskuma edo eskoi (eskoe) bizk. aldaeraren ordez* eskuin *darabil: "nire seme bi honeek jesarri daitezala zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean"*.

[L.Z.]. Bai, egia da. Ihes egin deuskue *eskuin* batek edo bik. Baina irakurten jarraitu ezkero ezin ukatu izango dozu beste aldera jo dogula. Ik. Mt 27,38: eskuman. Mk 10,37: eskuman. Mk 10,40: eskoi-ezkerretan. Lk 23,33: eskumaldean. Eta halan be ezin ahaztu 1969tik hona "Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskui-aldean (sic) zaituguna" eta Kredoan "Aitaren eskui-aldean jarririk dago" gure eleizbarrutiko parrokietan egunero esaten eta kantatzen dihardugula (*Mezaren Egunerokoa*, Erroman onetsia: "Confirmatur interpretatio vasconica

novi Ordinis missae, die 24 oct. 1969. Sacra Congregatio pro cultu divino, Prot. N. 1412/69).

Dana dala, zuk guk egindako *aukera* modura aitatzen dozuz forma batzuk: **-**zio, -gatik, eskuin. Ebanjelioen liburua osorik irakurri ezkero, argi be argi geratzen da ez dirana izan gure opzino. Gertatu dana beste hau da: beti be ez gara argi eta zuhur egoten, eta aurrean dogun testua euskara batuan egotean, "aliquando bonus dormitat Homerus", eta banakaren batzuk bizkaieratu barik geratu dira. Ez dago beste misteriorik.

[I.]. *Sinonimoak izanik* handinahia *eta* handigurea*, eta bigarren hau askoz sustraituagoa bizkaieraz, JKE-k* handinahia *(Mt 20,20) hautatu dau*.

[L.Z.]. Egia da *handinahia* jarri doguna, oinarrizkoan agertzen zan moduan. Ez dogu ikusi arazo modurik aurretik egoana onartzeko. Ezinbestezkoa ete zan *handigurea* ipintzea? Zenbat urte daroa Bizkaiko herriak (ia bost hamarkada) *egin bedi zure nahia* esaten eta kantatzen? Liburuan zehar behin baino gehiagotan ikusi zeinke *nahia*, baina horrek ez dau esan gura *gura* baztertu dogunik. Adibide modura, horra hor San Joanen araberako ebanjelioan agertzen diran *gura* batzuk: gurago izan / adoratzaileak gura ditu / zer gura eban / gura ete dozu / ez dozue etorri gura / eroan gura ebela / hartu gura izan eben / alde egin gura dozue / ez eban ibili gura / ezagutzera emon gura dauanak / hil gura dabena / Joan gura ete dau / hartu gura eben / ni hil guran / onartu gura ez dozuelako / Aitaren gogoa gura dozue egin / egin gura deustazue / hartu gura izan eben / egin gura izan eutsuen / gura dozue askatzea / ez eben gura / gurako ez dozun lekura / gelditzea gura badot… Beste ebanjelarietan be zenbat gura *gura* aurkituko dozu.

Gogoeta modura

Derioko ibilbidean hasierarik ikur moduko jarreraren agerpen izan zan *baturantz* esapideak gaur be indarrean irautea gurako neuke. Baturantz urrats barri batzuk emoteak ez leuskio kalte handirik ekarriko bizkaierari, ugari berba egiten eta idazten jarraituko bagendu. Hizkuntzak eta hizkerak bizia dauke, eta bizikidetzak arauak behar ditu, baina arauez gain hartu-emonakaz bizkortzen eta aberasten da egiazko alkarbizitza, baita hizkuntzan be.

1969an hartu neban nik *bateoa* itzulpen munduan, On Manuel Lekuonagaz eta Mikel Zarategaz *Eskolarako Katezismoak* (erderaz orduan halan deitzen ziran, nahiz eta benetako katezismoak ez izan) euskeratzeari ekin geuntsanean. Mikel eta biok hamabostero joaten ginan Donostiako Seminariora, eta han ekiten geuntsan, goiz eta arratsalde, jo eta ke.

Gerora, Kerexetaren *Alkartasun Barria* liburuko sarrerak eta beranduago *Euskal Biblia*ren liburu guztien sarrerak idatzi nebazan D. Jaimeren eskariz (nahiz eta berak *grafia* bere erara moldatu). Azken hamarkadetan eten barik lan egin dot Eleizbarruti-arteko Liturgi-Euskeratzaile Taldean, Elizen arteko Bibliaren itzulpenean, Euskal Baliabideak taldean, Katekesirako eta Liturgiarako baliabide guztien itzulpenetan eta, aparteko eran, neure eskutik eta azterketatik pasatuz argitaratu dira (batuaz eta bizkaieraz) Eleizbarruti-arteko Haurtzaroko eta Helduen Katekesia ibilbideak, euren kreazinoan be partaide izanik, Bilboko Eleizbarrutiko Gotzainaren Katekesirako Ordezkari modura. 2013an Eleizbarrutiko Euskera Zerbitzuko zuzendari izendatu ninduen.

Derioko Udako Ikastaroetan hasierarik izan naz laguntzaile eta bigarren urterik gora urteetan irakasle. Aurretiaz, inoiz, abadegai zinala, filosofia ikasketak egiten zengozanean, zeure irakasle be bai?

Idatz eta Mintz aldizkarirako be behin baino sarriago idatzi izan dot, bertako arduradunen eskariei erantzuna emonez. Beste jarrerarik eta jokaera zabalagorik eta hurkoagorik itxaron neikean nik? Zoritxarrez ez da holakorik gertatu. Tamalgarria?

Zorroztasuna eta zehaztasuna oso onak eta beharrezkoak dira, eta nire ikasle ohiek badauke horren barri eta badakie zeozer horretaz. Baina malgutasunak eta askatasunak be euren lekua behar dabe. Geureari eta barrukoari begira egotetik kanpokoa be ikusi eta aintzat hartzeak, kanpokoagaz eta besteenakaz geurea aberastera eroaten gaitue. Labayru Fundazio ohoragarriaz eta eskertu beharrekoaz kanpo be bada bizkaierarik, eta, akatsen bat gorabehera, bada baita bizkaieraz duintasunez edo txukun antzean idazten dauanik be, Bejondeiela!

Artikuluaren azken parrafoa irakurri dodanean, harako gure Mikel Zarateren *"Bestelan ondo baina, ez?"* bururatu jat behingoan: golpea bekokian, autoa ezertarako ez dala, dendea hutsik lapurretan egin deutsielako, seme zaharra gaixorik geroago eta txarrago, beste semeak alde egin etxetik, emazteak dibortzioa eskatu… Bestelan ondo baina, ez? Bai, bai, bestelan… oso ondo! (*Bilbo irribarrez*, 77.or.).

Aurreko zaparrada luzearen ostean, sei lerroko argiunea egin dozu itzulpena maila onekoa dala autortzeko, eta jarraian gehitzen dozu:

Zoriontzekoa, danari begiratuta, kritikak gorabehera. *On beharrez eginak dira*. Egin dozun kritika eta erabili dozun modua ikusita, inor gitxik autortuko dau *on beharrez eginak dira* azken esaldi horren sinesgarritasuna. Niri neuri gatx egiten jat, benetan. Dana dala, sinistu egin gura dot zure autormena, harako ebanjelioko berbak neure eginez: *Sinistu gura dot! Lagundu sinisbako honi!* (Mk 9,24).

Artikulua idatzi aurretik informazinoa zehatz eskuratu bazendu edo nigaz berba egin bazendu, oker-ulertuetan ez zinan jausiko, eta kritika argiagoa, neurritsuagoa eta zuzenagoa egingo zenduan, duda barik.

Kontuan hartzen doguz zure erreguak, nahiz eta beti ez jarraitu. Zure erreguak erregu, neuk be gurako neuke zugan, zeure artikuluan aitatzen dozun malgutasuna, non eta euskalkian, eta noiz eta euskara batuak gure artean bide luzea egin dauanean, bizkaieraz berba egiten eta idazten dogunontzat be, bai orain eta bai gerora, onuragarria eta aberasgarria izango dalakoan nagoalako.

Gauza batzuk argitze aldera esanak esanda, nire izena ezelan be estaldu barik eta asaskaldi askatzailearen ostean, nire aldetik behintzat lehengo bestean lagun, bizkaieraren eta euskeraren alde lan egiten jarraitzeko prest.